



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat


booktegi.eus

2020KO DENBORALDIA ESTROPADAK ETXETIK



Aitor Arrizabalaga

Xabier Castrillon



Gu sortu ginen enbor beretik, sortuko dira besteak...

Nire bizitzan eta nire familiarenean Nikolas eta bere senideak ezagutu izana dohaina izan da. Berarekin jarraitu nuen aditzen ikasten. Bere jakinduriatik edateko asmoz galdera asko egiten nizkion eta beti erantzun egoki bat jasotzen nuen. Maite nuen eta nire isiltasun momentuetan, askotan, bere presentzia sumatzen dut.

Nikolasi eta Txomini, eta haien senide guztiei

Gure familian, beste dohaina izan da Txomin eta bere senideak ezagutzea. Maitatua zen Txomin Hondarribiko Arraun Elkartean, Hondarribian, Orion... Izaera alaiarengatik gogoratzen dut eta horregatik ere zen hain maitatua, alaitasun horrekin bere inguruan ginen pertsonak irabazi gintuen.

ESTROPADAK
ETXETIK
2020KO DENBORALDIA

Xabier Castrillon

EGILEA: Xabier Castrillon

TESTUEN EGILEAK

Ez da beste urte bat izan: Ibon Gaztañazpi

Virgilio, Eneida. Estropadak: Maite López Las Heras (sarrera eta itzulpena)

Galtzaileak: Jexux Eizagirre

1918ko Kontxako lehenengo jardunaldiaren kontakizuna: Karlos Zabala (itzulpena)

1932. urtean Zumaian jokaturako estropada baten kontakizuna: Georges Barbarin

Euskarazko bertsioa: Maia Ossa Risanen

2020ko Coruñaako lehenengo jardunaldiaren kontakizunak: Aitor Manterola

Eusko Label eta Euskotren ligetako sarrerak: Xabier Castrillon

Estropada eremuetako zenbait testuen egilea: Gorka Zabaleta

Zakilixut zinten ohin-oharrak: Xabier Castrillon

Hausnarketagileak: Agirre, Nadeth; Alberdi, Markel; Aldai, Manex; Amunarriz, Joseba; Aranburu, Iratxe; Aranguren, Blanka; Arruti, Laida; Carraceras, Sara; Castrillon, Xabier; Chourraut, Maialen; Diez, Amaia; Elortegi, Jon; Fernandez, Joseba; O. Iribar, Mikel; Irizar, Markel; Iurramendi, Niko; Las, Iñigo; Leibar, Lide; Manterola, Aitor; Mateo, Rakel; Oiarbide, Asier; Olasagasti, Itziar; Orbañanos, Mikel; Pasaban, Edurne; Portularrume, Mikel; Uranga, Garikoitz; Zabala, Ander; Zabala, Iker; Zabaleta, Xanti; Zulaika, Luix Mari; Zupiria, Bingen.

KONTXAKO KONTAKIZUN GRAFIKOA

Zakilixut: Antton Olariaga

BESTELAKOAK

Zuzenketa lanak: Karlos Zabala

Argazki-Kredituak: Bermeo Arraun Argazkiak, HAE (Hondarribia Arraun Elkarte), Kutxateka, El Diario Vasco, TKE (Traineruen Klub Elkarte).

Argazkilariak: I. Arizmendi, A. Arrizabalaga, J.M.Lopez.

Diseinua eta maketazioa: Xabier Castrillon

Azalaren argazkia: Aitor Arrizabalaga

Argitaratzailea: Digitarte

Edizio mugatua: 100 ale

Lehen argitaraldia: Donostia, 2021eko ekainaren 17an

ISBN: 978-84-09-30757-9

Lege gordailua: D 00634-2021

Liburu honetako testu zein argazkien eskubideak egileenak dira.

Copyrights: Virgilio, Eneida. Estropadak: Maite López Las Heras.

Copyrights: Zakilixut: Antton Olariaga.

Liburu honen edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Liburu honetan zenbait argazki inprimatu ahal izateko jasotako baimena eskertu nahi dut.

Copyrights-en jabeekin kontaktatzeko ahalegina egin arren, ezin izan dut batzuen baimena edo kreditua lortu. Kreditua lortu ez dudana argazkiren baten jabea bazara, nirekin harremanetan jartzea eskertuko nizuke.



1919. Donostiako estropadak. Euskal Itsas Museoa

AURKIBIDEA

HITZAURREA	09	XXXV. El Correo Bandera. BBK S.N. (Lekeitio).....	82
Ez da beste urte bat izan.....	10	Hondarribiko XXXIII. Bandera. Mapfre S.N.....	88
Virgilio, <i>Eneida</i>	11	Ondarroako XXXVI. Bandera. Cikautxo S.N.....	92
Zakilixut: 1999.....	18	Zarauzko XLIII. Ikurrina	98
Zakilixut: 2000.....	19	Santurtzikiko XLI. Ikurrina.....	108
Galtzaileak.....	20	Sestaoko XIX. Bandera.....	110
Zakilixut: 2001 eta 2002.....	22	XIII Bandeira Concello de Ares.....	114
Zakilixut: 2003.....	23	XXX Bandeira Concello de Boiro.....	116
1918ko Kontxako lehenengo jardunaldia.....	24	Bermeo Hiriko XXXVIII. Ikurrina. Avia S.N.....	120
Zakilixut: 2004.....	30	L.S.N. XLVI. Bandera Corte Ingles.....	124
Zakilixut: 2005.....	31	Estropaden irabazleak, sailkapenak, sariak, errekorrak.....	130
1932. urtean Zumaian jokaturako estropada.....	32	Euskal Herriko estropada eremuak.....	134
Zakilixut: 2006.....	36	Estropada eremuen azterketak.....	138
Zakilixut: 2007.....	37	Garaipen-zerrenda, irabazitako estropadak, bajak.....	142
2020ko Coruñaako lehenengo jardunaldia.....	38	Zakilixut: 2010.....	146
Zakilixut: 2008.....	44	Zakilixut: 2011.....	147
Zakilixut: 2009.....	45		
		EUSKOTREN LIGA	148
EUSKO LABEL LIGA	46	Coruña Hiriko III. Bandera.....	150
Coruña Hiriko IV. Bandera.....	48	V. CaixaBank Bandera (Donostia).....	154
VIII. CaixaBank Bandera (Donostia).....	54	IV. Petronor Bandera (Zierbena).....	155
XXXVII. Petronor Bandera (Zierbena).....	58	Getxoko XII. Ikurrina.....	158
Getxoko estropaden XLII. Ikurrina.....	64	Orioko XIX. Emakume Estropadak. VIII. Orio Kanpina.....	160
Orioko XXX. Estropadak. VIII. Orio Kanpina bandera.....	70	Bilboko II. Bandera.....	164
Bilboko XI. Bandera.....	72	IX. Euskotren Bandera (Lekeitio).....	165

AURKIBIDEA

Txingudiko XII. Bandera. Mapfre S.N. (Hondarribia).....	168	KONTXA. EMAKUMEZKOAK	
Ondarroako III. Bandera. Cikautxo S.N.....	169	Kontxako Sailkatze estropada.....	202
Zarauzko XII. Ikurrina.....	172	XXIII. Kontxako Lehen jardunaldia.....	230
Estropaden irabazleak, sailkapenak, sariak, errekorrak.....	177	XXIII. Kontxako Bigarren jardunaldia.....	237
Garaipen-zerrenda, irabazitako estropadak, bajak.....	181	Denbora onenak, garaipen-zerrenda.....	242
Zakilixut: 2012.....	184		
Zakilixut: 2013.....	185	Kontxako handiak.....	244
		Kontxa. Mende honetako irabazleen taula	246
TRAINERU TXAPELKETAK	186		
Gipuzkoako XLIX. Traineru Txapelketa. Gizonezkoak.....	188	Erreferentziak.....	248
Gipuzkoako XIII. Traineru Txapelketa. Emakumezkoak.....	189		
Zakilixut: 2015.....	190		
Zakilixut: 2016.....	191		
Euskadiko XXXV. Traineru Txapelketa. Gizonezkoak.....	192		
Euskadiko XXII. Traineru Txapelketa. Emakumezkoak.....	193		
Zakilixut: 2017.....	194		
Zakilixut: 2018.....	195		
KONTXA. GIZONEZKOAK	196		
Kontxako Sailkatze estropada.....	198		
CXXV. Kontxako Lehen jardunaldia.....	204		
CXXV. Kontxako Bigarren jardunaldia.....	214		
Denbora onenak, garaipen-zerrenda.....	223		
Zakilixut: 2019.....	228		
Zakilixut: 2020.....	229		



2020 Ondarroa
Aitor Arrizabalaga

Hitzaurrea

Aurtengo liburuan 2020ko denboraldian estropadaz estropada egin ditudan kronikaz gain, beste bi ardatz sartu ditut. Batetik, hainbat garaitan estropadez idatzi diren bost kontaera. Eta, bestetik, kontakizun grafikoak.

Ondoko hauek dira kontaera idatziak:

Lehenengoa, estropada bati buruz idatzita iritsi zaigun zaharrena, K.a. I. mendean Virgiliok idatzitako Eneida liburuan aurkitzen duguna. Itzulpena latinetik euskarara Maite López Las Herasek egin du. Aurretik ere bageneukan euskaraz testu horren itzulpen bat, 1966an Aita Onaindiak egin zuena.

Bigarrena, 1895eko Kontxako estropadari buruz Jexux Eizagirrek idatzitako Garaileak ipuina.

Hirugarrena, 1918. urteko Kontxako lehenengo jardunaldiaren kontakizuna (La Voz de Gipuzkoak egunkarian argitaratua), Karlos Zabala itzultzaileak euskarara itzuli duena. Urte hau aukeratu dut Euskal Herrian eta beste herrialdetan gripe espainiarrak sufrimendu handia sortu zuelako eta pandemiaren bigarren olatu bortitzena urte horren irailean gertatu zelako.

Ondoren, 1932. urte inguruko Zumaian jokaturako estropada baten kontakizuna, Georges Barbarinen “Jesusa Gipuzkoakoa” liburuan agertzen dena.

Atal hau bukatzeko, Aitor Manterola kazetariak iaz Eusko Label eta Euskotren ligetako lehenengo estropadez Berria egunkarirako idatzitako artikulua.

Estropaden kroniketan lehiaketa eremuak gehitu ditut, eta, horietan informazioa osatzeko, Gorka Zabaletaren “121 amu kostaldea ezagutzeko” liburutik zenbait pasarte hartu ditut.

Kontakizun grafikoari dagokionez, batetik, irudietan [eratu ditut](#) iazko Kontxako jardunaldiei buruz telebista saioetan egindako kronikak. Bestetik, argazkiez gain (gehienak Aitor Arrizabalagak egindakoak), Antton Olariagaren zenbait zinta agertzen dira. Olariagak Zakilixuten bitartez ezin hobeto azaltzen digu estropada egunen inguruko gure herriko egoera soziopolitikoa. Zintak liburuan tartekatuta daude.

Azkenik, liburuaren hasieran Ibon Gaztañazpik egindako iritzi artikulua.

Ea gozatzen duzuen, eta lan honetan parte hartu duzueni bihotz-bihotzez eskerrik asko.

Xabier Castrillon

Ez da beste urte bat izan

Aurtengo traineru denboraldia ez ohikoa izan dela esatea pellokeria bat litzateke, 2020ko traineru, trainerilla, batel edo aulki mugikorreko sasoia ez ezik, beste guztia ere izan baita ezberdina gure gizartean zorioneko COVID-19a tarteko. Gutako guztion bizimodua hankaz gora jarri zen urte gisa gogoratuko dugu 2020a.

Etxean itxita egon gara, kale hutsen irudiak apokaliptikoak iruditu zaizkigu, hildakoen zerraldoak pilatuta agertu zaizkigu albistegietan. Eta dena etxetik oso gertu. Ez da beste urte bat izan. Ezta kirolean ere. Tokion jokatu beharreko Olinpiar Jokoak bertan behera geratu dira, Frantziako Tourra edo futboleko Eurokopa bezalaxe. Atera kontuak. Euskal Herritik atera gabe, pilotariak jokatu ezinik eta greban ikusi ditugu, Aizkorrin maratoirik ez da egin, plazak herri kirolaririk gabe, errepideak ziklistarik gabe, kiroldegiak itxita eta hutsik.

Testuinguru honetan, traineru liga nagusiak, txapelketak eta Kontxako bandera jokatu izana bakarrik erabateko arrakasta moduan ulertu behar dugula uste dut, azken urte hauetan traineru estropadek euskal jendartean hartu duten dimentsioaren adierazgarri garbia. Bestela, ez litzateke inolaz ere ulertuko, ia dena geldirik egon den urtean, traineru estropadak jokatu izana.

Arraunlariak eta, oro har, arraun munduko jendea eguneroko zurrunbiloak harrapatatuta dabilta, norbera bere ontziaren, taldearen eta klubaren defentsan,

eta ez dakit traineru estropaden jiran gabiltzanok konturatzen garen 2020an arraun munduaren lorpenaren dimentsioaz. Segur aski, bizitzako beste hainbat alorretan bezala, denbora pasatzen utzi beharko dugu, pandemiak gizartea geratu zuen urtean traineru estropadak jokatu izanaren kontzientzia osoa hartzeko.

Zaleen kolorerik gabeko arraupala eta itsas bazter hutsak ikusi ditugu aurtengo estropadetan, ergometroak bizilekuetako egongeletan, arraunlariak musukoak jarrita, aldagelak itxita, entrenatzaile, arraunlari eta zuzendaritzako kideetako bilera telematiko amaigabeak... Zakilixut bera ere zur eta lur utzi duten irudiak. Askotan lotzen da arrauna liskar, okasio eta elkar ulertu ezinarekin, baina arraun munduak 2020ko denboraldia aurrera ateratzeko erakutsi duen borondatea eta elkar hartzeko grina gizarte osoarentzako eredugarri irudi zait.

Arraunzaleon elkarriketetan askotan ateratzen dugun hitz bat da 'historikoa'. Inoiz arraun urte bat 'historikoa' izan bada, 2020a izan dela uste dut. Hondarribian, Orion eta Santurtzin, gustura daude bertako traineruak irabazi dituztelako aurten denboraldiko liga eta banderarik preziatuenak. Zorionak guztiei, noski, baina topikoaz haratago, aurten zerbaitek irabazi badu, arraunak eta traineru estropadek irabazi dute.

Denbora lekuko.

Ibon Gaztañazpi

Virgilio, *Eneida*

Sarrera

Estropadei buruz dihardu K. a. I. mendean Mantuan jaiotako Virgilio izeneko idazle latindarrak idatzitako *Eneida* lanaren V. liburuko zati batek. Homeroren *Iliadan* inspiratu bazen ere, Eneasen aita Ankisesen omenez egindako jokoen funtzioa oso bestelakoa zen; izan ere, *Eneidaren* V. liburuan agertzen diren lehiak bereziki sutsuak diren bi pasarteren arteko tentsioa baretzeko balio dute: IV. liburuan azaltzen den Didoren tragedia, batetik, eta VI.eko aberriaren goraipamena, bestetik. Eredutzat hartutako *Iliadaren* XXIII. kantuan Patrokloren omenez Akilesek deitutako jokoetan, Homerok zortzi lehiaketa deskribatzen ditu; Virgiliorenean, aldiz, lau agertzen dira: estropadak, oinezko lasterketa, borroka eta jomugara tiro egitea. *Eneida* “hexametro daktiliko” izeneko metroetan konposaturiko hamabi liburuk osatzen dute. Izenburuak

berak dioen bezala, Eneas da protagonista, eta Troiatik irten eta Afrika iparraldeko Kartagora iristean, Dido izeneko bertako erreginari Troiaren amaiera azaltzen dio. Eneasen hitzetan, Ankises aita sorbalda gainean hartuta eta seme Askanio eskutik helduta lortu zuen handik irtetea. Dido, orduan, erabat maitemintzen da Eneasekin, eta berarekin atxiki nahi du.

Hala ere, *Eneidako* protagonistak bere bidea jarraitu nahi duela eta, ez da erreginarekin geratzen, eta emakumeak, maiteminak jota, bere buruaz beste egiten du.

Azkenean, Eneas Italiako kostaldera iristen da, Lazorra, hain zuzen, eta bertako errege Latinok alaba Laviniarekin ezkontzea eskaintzen dio, orakuluak hala esanda. Lavinia, ordea, Turnorekin ezkontzekotan zegoenez, Eneas eta Turnoren arteko liskar izugarria gertatuko da. Bukatzeko, Eneasen garaipenarekin amaituko da Virgilioren *Eneida*.

Estropadak

Esperotako eguna iritsi zen. Jadanik bederatzigarren¹ Egunsenti² oskarbia zekarren Faetonteren³ zalditeriak, eta Azestes⁴ famatuaren ospeak eta izenak auzokoak kitzikatu zituen. Talde alaiez bete zuten itsasertza eneatarrak ikustera joandakoek; batzuk, gainera, lehiatzeko prest. Sariak hasieran begien bistan eta zirku erdian jarri dituzte: tripode sakratuak, koroa berdeak, palmak, garaileentzako ordainsaria, armak, purpura kolorez tindatutako jantziak eta zilarrezko eta urrezko talentuak⁵. Turutak, orduan, muino erditik jokoan hasiera iragartzen du.

¹ Ankises, Eneasen aita, Siziliako kostaldean hil zen, portutik irtetean troiatarrei erasotako ikaragarritzko ekaitzaren ondorioz. Antzinakoek bederatzia egunetz itxaron ohi zuten heriotza baten kausaz harrapatutako zikinkeria desagertzeko. Hemen jokoak urteurreneko ekitalditik bederatzia egunera hasten dira.

² Erromatar mitologiaren arabera, Aurora edo Egunsentia goizaldearen jainkosa zen.

³ Faeton edo Faetonte Eguzkiaren (Helioren) eta Klimene izeneko ozeanidearen semea zen ("Ozeanida" deitzen zaie Ozeano eta Tetisen alaba ziren itsasoko ninfetako bakoitzari). Faetontek ez zuen jakin aita nor zen nerabezaroan amak esan zion arte. Orduan, aitari haren gurdia gidatzen uzteko erregutu zion. Zalantza askoren ostean, aitak onartu, eta Faetonte zerurantz abiatu zen, garaieraz izutu zen arte. Aitaren aholkuei jaramonik egin gabe, ia Lurra kiskaltzeraino jaitsi zen, eta ondoren berriro igo, goregi. Astroek Zeusi honen berri eman eta gero, jainko aitak gerra-pizte unibertsal bat ekidin nahian, suntsitu egin zuen, Eridano ibairantz jaurtiz.

⁴ Troiar heroia, Siziliako erregea. Bertan abegi egin zion Eneasi, Troiako setioaren ondoren.

Ontzi bakoitzak brankan daraman irudiaren deskribapena⁶

Lehenengo lehiari, ontzidia guztitik hautatuta, arraunen astuntasun berdineko lau itsasontzik ekiten diote. Mnesteok⁷ arraunlari sutsuzko Balea⁸ azkarra gidatzen du, laster italiarra izango den Mnesteok, zeinengandik memiarren⁹ leinuak izena hartuko duen. Gias¹⁰ masa puska itzelak Kimera itzela, ur gaineko hiria, dardaniar gazteriak ilara hirukoitzean¹¹ bultzatzen duena, hirunakako segidatan arraunak igoz. Sergesto, sergiar familiari izena emango diona, Zentauro handian doa. Eta Eszila urdinxkan Kloanto, zeinengandik leinua datorkizun zuri, erromatar Kluentzio¹².

⁵ Atikar talentua: 60 minaren balioko txanpona. Mina, berriz, 100 drakma pisatzen zituen antzinako greziar txanpona. Drakma, oster, atenastarren dirua zen, erromatar denario baten baliokidea, hamar as edo lau sestertzio balio zituen txanponarena, alegia.

⁶ Letra etzanez dauden esaldiak itzultzailearen ekarpenak dira, irakurleari pasarteak errazteko egindako sarrera gisa erantsitakoak.

⁷ Troiar heroia eta Eneasen kidea. Igerilari eta arkulari aparta zen. Troiako guda amaitsu ostean, iberiar penintsulara jo zuen, eta Mnesteoren Portua izeneko hiria fundatu zuen, egun Kadizko Santa Maria Portua izenez ezagutzen dena, hain zuzen.

⁸ Itsasontzi bakoitzak animalia edo munstro baten irudia eraman ohi zuen brankan, eta haren izena hartzen zuen. Hemen, Kimera, Zentauro eta Eszila agertzen dira. Kimera lehoi burua eta ahuntz gorputza zuen munstro bat zen, isatsetik sugarrak botatzen zituena. ⁹ Troiako legenda boladan zegoen Virgilioren garaian, Erromako familia nagusiek heroien batetik eratorriak izan nahi zuten. ¹⁰ Greziar mitologiaren arabera, Gias Hekatonkiro bat zen, hots, ehun beso eta berrogeita hamar buruko erraldoi bat.

¹¹ Heroiaren garaian trirremetik eta birremetik ez bazegoen ere, Virgiliok bere garaiko objektuak aurkeztu ditu irakurlearen arreta pizteko.

Lehiaketaren lekua deskribatzen da. Irten aurretiko tentsioa. Lasterketaren hasiera: aldarriak eta iguripena izugarriak dira. Ziaboga.

Bada urruti, itsas zabalean, haitz bat, itsasertz
apar-sortzailearen aurrean, tarteka olatu harroek kolpekatu
eta hondoratzen dutena, neguko Kauroek¹³ izarrak
ezkutatzen dituztenean; barealdian isilik egoten da, eta ur
mugiezinean altxatzen da goi-ordokia, eguzkitan egoten
diren murgilentzako atsedentzako oso atsegina. Hemen Eneas
aitak¹⁴ hostoz beteriko artetik meta berde bat ipini du,
marinelentzako seinale, hortik itzuli behar dutela jakin
dezaten, baita ibilbide luzean bihurgunea non hartu behar
duten ere.

¹² Partaideak irteerarantz doazen unea deskribatzen da. Ontziek izen grekoa daukate, kapitainak troiar heroiak dira (beste lehiaketetan gertatzen ez den bezala, hemen Eneasen kideek soilik hartzen dute parte), eta poeta eneatarren eta Erromako historiako familia ospetsuen arteko ahaidetasuna ezartzeaz arduratzen da. Horretaz gain, hemen aipatzen den Kluentzio erromatarra Zizeronen *Pro Cluentio* hitzaldian agertzen da.

¹³ Ipar-mendebaldeko haizeari deritzo.

¹⁴ Virgiliok *pater* zein *genitor* epitetoak erabiltzen ditu Eneasen aita Ankisesi buruz aipamenak egiten dituenean, hura hil arte. Aita hildakoan, ordea, Eneas bera izendatuko du aita edo *pater*. Ondorioz, hemen Eneas berari ari da, eta izenari indarra ematen dion *pater* hitzak agurgarritasun kutsua ere aitortzen dio.

Arraunlarien deskribapena

Ondoren, postuak zotzean hautatzen dituzte, eta popetan
gidariek beraiek urrun dirdiratzten dute urrezko eta
purpurazko apainduraz; gainerako gazteria makalaren
hostozko koroaz apaintzen da, eta sorbalda biluziak olio
blaituta distiratsu jartzen ditu. Tostetan esertzen dira,
besoak arraunetara luzatuta. Adi daude seinalearen zain, eta
bihotzak saltoka jartzen dizkiete beldur biziak eta
gorespenaren grina oldarkorrak. Gero, turuta argiak soinua
egin zuenean, guztiak euren mugetatik, atzerapenik gabe,
oldarrean irten ziren. Marinelen zalapartak zerua zauritzen
du; besoen eraginez itsaso nahasiak bitsa ateratzen du. Aldi
berean egiten dituzte ildoak, eta itsaso osoa irekitzen da
arraunez eta hiru hortzeko ontzi-muturrez astinduta. Ez dute
gurdiak zelaia hain azkar irensten zaldi biko lehiaketan, ezta
horrela korrika egin ere hesitik ateratzean, eta zaldizainak
ere ez dira hain sutsu aritzen uztarriei lotutako uhin-uhalak
astintzean eta aurrerantz makurtuta zaldiak zigortzean.
Orduan, ikusleen txaloz eta marruz durundatzen du baso
osoak, bakoitzak bereak sutsuki adoretzen dituelarik, eta
inguruko itsasbazterrek ahotsa durundarazten dute, eta
aldarriz urratutako muinoek errebotatzen dute.

Irteera oso parekatua izan bada ere, postuak bereizten hasten dira: Gias lehenengoan, Kloanto ondoren. Atzetik, oso berdinduta, “Balea” eta “Zentauroa”.

lhes egiten du besteak baino lehen, eta lehenengo olatuetatik irristatzen da zarata eta orro artean Gias; zeini gero Kloantok jarraitzen dion, arraunetan hobia, pinuaren pisuagatik, ordea, berandutzen ari da. Hauen ondoren, tarte berdinez, Balea eta Zentauroa aurreko postua irabazten saiatzen dira: orain Balea dago, orain Zentauro izugarriak garailea igarotzen du, orain biak batera aurrealdeak elkarren parean dituztelarik doaz, eta gila luzearekin olatu gaziak ildaskatzen dituzte. Eta jadanik haitzera gerturatzen eta helmugara zuzentzen ari ziren, aitzindari eta itsaso erdian garaile zihoan Giasek ontziaren gidari Menetesi¹⁵ ahotsez oihukatzen dionean: “Zergatik desbideratzen nauzu hain eskuinerantz? Zuzendu norabidea hona! Hurbildu zaitez itsasertzera, eta arraun-palek urratu ditzatela ezkerreko arrezifeak! Itsas zabala izan dadila besteentzat!” esan zuen; baina Menetesez, uharri ikusezinen beldurrez, branka itsasoko olatuetarantz okertzen du. “Zergatik zoaz bestaldera?”, berriro, “Zoaz haitzetarantz, Menetes!” oihuka errepikatzen zion Giasek, eta hara non ikusten duen Kloanto,

¹⁵ Menetes Kimera itsasontziko lemazaina zen, Ankisesen omenez ospatutako estropada hauetan haren kapitaina zen Giasek itsasora jaurti zuena.

bizkarretik gertu eta hurbiltzen ari zitzaiola. Hark barrutik zeharkatzen du ezkerreko bidea, Giasen itsasontzi eta arroka durundatsuen artetik, eta bat-batean lehendabizikoa igarotzen du, eta helmuga atzean utzita, itsasoa arriskurik gabe dauka. Orduan, benetan piztu zitzaion gazteari hezurretako min ikaragarria, eta masailak malkoz bete zitzaizkion, eta zuhurtziaz ahaztuta eta baita bere kideen osasunaz ere, Menetes alferra itsasora eroraraziz popa gorenetik bota zuen. Bera leman buruzagi jartzen da, bera nagusi ere badelarik, gizonak animatzen ditu, eta endaitza itsasertzearantz okertzen du. Baina, azkenean, Menetes astuna hondo sakonetik ozta-ozta itzuli zenean, jadanik zaharragoa eta jantzi bustian blai, uharriaren puntu gorenera gerturatu eta haitz lehorrean eseri zen. Eta teukrotarrek¹⁶ isekari barre egin zioten labainka zebilen hari, baita igerian zebilenean eta bularretik ur gazia botatzean ere.

Hemen piztu zen atzeratzen ari zen Giasi aurea hartzeko itxaropen pozgarria azken zihoazen biengan, Sergesto eta Mnesteorengan. Sergestok hartzen du aurreko lekua, eta uharrira hurbiltzen da, alabaina, hura ez da lehenengo jarri ontzi osoaren luzerarekin ere; zati batean bakarrik lehenengoa, hein batean Balea

¹⁶Teukro, Troiako lehenengo erregearen omenez troiarrei ezarritako izena.

lehiakideak itsasontzi-muturra erasotzen baitio. Baina, Mnesteok, itsasontzi erdian aurrera doala, bere kideak animatzen ditu: “Orain! Orain indarrez arraun egin, Hektorren¹⁷ kideok, Troiaren zori garaienean bidelaguntzat aukeratu zintuztedanak! Atera orain indar haiek, orain, Getuliar¹⁸ Hondarpeetan, Joniar Itsasoan¹⁹, eta elkarri azkar jarraitzen zaizkion Maleako²⁰ olatuetan erabilitako adorea! Ez dut jadanik nik, Mnesteok, aurrenekoa eskatzen, ezta irabaztea ere, nahiz eta, beharbada... Baina, irabazi dezatela, oi Neptuno²¹, zuk aukeratu dituzun horiek. Azken iristea lotsaizuna izan dadila: garaitu hori, hiritarrok, eta urrundu halako bidegabekeria!”. Haiek lehia latzean aurrerantz makurtzen dira: kolpe handiengatik dardaratzen du brontzeko popak, eta hondoa azpitik doa ihesean. Orduan, arnasestu sarriak gorputz-adarrak eta aho lehorrak astintzen ditu, eta izerdia jario da nonahitik uholdeka.

Kasualitate hark berak eman zien gizonei opa zuten ohorea: hain zuzen, Sergestok haserre bizian branka

¹⁷ Hektor troiar printzea izan zen, Troiako gudan hiria akeoen erasoetatik babesteko arduraduna, Akilesek hiltzen duen arte.

¹⁸ Getulia Libiako ipar-ekialdean eta Mauretania eta Numidiako hegoaldean zegoen getuliarren herrialdea zen.

¹⁹ Mediterranearen itsasoaren beso bat da, Itsaso Adriatikoaren hegoaldean.

²⁰ Peloponesiar penintsulako hego-ekialdean dagoen penintsula txiki bateko hegoaldean dagoen lurmuturra da. Mediterranearen itsasoko itsasargirik handienetakoa dago bertan. Homeroren *Odisean* Ulisesek Itakarako itzuleran Maleako lurmuturra inguratu zuen.

²¹ Itsasoaren jainkoa eta, sarritan, troiarrekiko lagunkoia.

haitzetara hurreratzen zuen bitartean eta barrurago sartu leku malkar batetik, gizagaixoa harkaitz irtenetan iltzatuta geratu zen. Uharriek durunda egin zuten, eta arraunak harkaitzaren tontor zorrotzean irmo astintzeagatik hautsi, eta branka suntsituta zintzilik gelditu zen. Marinelak zutitu eta zalapartaka hasten dira itxaronaldiagatik, eta burdinazko muturdun haga luzeak eta pertika zorrotzak ateratzen dituzte, eta itsasotik jaso hautsitako arraunak. Mnesteo, ordea, pozik eta gertatutakoagatik grinatsuago, behin haizeei laguntza eskatu ondoren, itsasoaren maldarantz doa arraunen talde azkar berarekin eta itsaso zabalerantz lasterka. Haitzulotik bat-batean ikaratutako usoa bezala, bertan bizitokia eta ezkutalekuz beteriko zulodun haitzean habiak dituena, landazabaletarantz hegan doa, eta izututa hego-astintze ikaragarritz sabaia inarrosten du; berehala, aire barean irristatuz hegan doa azkar, hegoak astindu gabe: horrela egiten du Mnesteok, eta horrelaxe mozten du itsasoa azken ihesaldian Baleak berak ere, hala darama kemenak berak hura hegan. Eta, lehenik, uharriaren irtengunean borrokan dabilen Sergesto uzten du atzean, behea jota laguntza eske alferrik dabilena, eta hautsitako arraunekin lasterketan jarraitzeko ahaleginak egiten ari dena. Handik Gias eta Kimera masa itzela bera ere jarraitzen ditu; azken honek amore ematen du, ez baitu lemazainik.

Eta jadanik bakarrik gelditu da helmugan bertan Kloanto, eta harengana hurbildu eta indar gorenekin ahaleginak eginez gerturatzen da. Orduan, zalaparta zinez areagotzen da, eta guztiek batera grinaz adoretzen dute jarraitu dezan, eta zeruak burrunbez durundatzen du. Batzuk haserre daude berezko ospea eta irabazitako ohorea ez mantentzeagatik, eta bizitza emango lukete loriaren truke; besteak arrakastak sustatzen ditu: ahal dute, ahal dutela uste dutelako²².

Azken lehia. Ikuslegoak aurrera egiten duen lehiakidea txalotzen du.

Eta, agian, itsasontzi-muturrak berdinduta saria lortuko lukete, Kloantok arraun-pala biak itsasora luzatuz ez baluke erregurik egingo, eta ezta jainkoei bere aldeko babesik eskatuko ere: “Jainkook, zeuona da lasterka egiten dudan itsasoaren gobernua; nik pozik eskainiko dizuet itsasertz honetan argi zuriz distiratzten duen zezen bat aldare aurrean, zin dagizuet, eta olatu gazietara erraiak jaurti eta ardoa uholdeka isuriko dut.” Esan zuen, eta olatu sakonenen azpian Nereiden eta Forkoren²³ koru osoak entzun zuen, baita Panopea birjinak ere, eta Portuno²⁴ aita berak itzelezko eskuaz bultzatzen zion: Noto²⁵ baino bizkorrago, lurrerantz ihesi doan gezi hegalaria bezala, portuan barrena gordez.

Berdinketaren kasuan, jainkoek errukiorrenaren alde egiten dute: garaiz egindako erregua, biktima baten eskaintza, eta garaipena Kloantorena da. Itsas-lehiaren amaiera.

Orduan, Ankisesen semeak, ohi bezala behin guztiak deitu ostean, mezulariaren ahots indartsuaz garailea Kloanto dela adierazten du, eta lokiak ereinotz berdez koroatzen dizkio, eta itsasontzi bakoitzarentzat ere opariak aukeratzen dituzte: hiru txahal eta ardoa eta zilarrezko talentu pisutsu bat. Ontziburuei sari bereziak ematen dizkie: garailearentzat urrezko klamidea²⁶, ertzak zerrenda bikoitzean gehienbat melibeatar²⁷ purpuraz inguratuz dituen. Errege-haurra ere

²² *Possunt quia posse videntur* latinezko esamoldeak, dirudienez, greziar mitologian du jatorria, izan ere, batzuek diotenez, Argonauten itsasontziko brankako irudian grabatuta omen zegoen esaldi hau. Itzulpen askeago bat “nahikoa da nahi izatea” izan liteke.

²³ Nereo itsas-jainkoaren eta Doris ninfaren berrogeita hamar alabak ziren Nereidak. Horietako bat Panopea zen. Forco, aldiz, Nereoren anaia zen.

²⁴ Erromatar mitologian giltzen, ateen eta abeltzaintzaren jainkoa zen. Gaztelerazko “puerta” eta “puerto” hitzekin zerikusia izanik, itsasoko sarrerako atearekin lotzen da. Atezain gisa, ikonografikoki giltzak eskuan dituela azaldu ohi da.

²⁵ Hego-haizea.

²⁶ Artilez egindako janzki arin eta motz bat zen, zaldunek kapa gisa erabili ohi zutena.

²⁷ Melibea purpura koloreko tinduengatik ospetsua zen Tesaliako hiri bat zen.

agertzen da brodatuta²⁸: Ida²⁹ hostotsuan geziarekin
 sutsu lasterka nekatzen ditu orein ar bizkorrak;
 arnasestuka dirudi, eta tupustean Idatik datorren
 Jupiterren armak daramatzen hegaztiak harrapatu, eta
 gora eraman zuen zango kakotueta. Zaindari zaharrek
 alferrik luzatzen dituzte eskuak zerurantz, eta txakurren
 zaunka haserre barreiatzen da haizeetarantz.
 Baina, gero, merituz bigarren lekua duen gizonari,
 borroketan balentria eta babesa izan ditzan, izurdun
 sarea eta urrezko hari hirukoitzez jositako koraza
 oparitzen dizkio; hain zuzen, berak³⁰, garaile izanik,
 Demoleori³¹ kendu ziona Simunte³² bizkorraren ertzean,
 Ilion³³ garaiazen behealdean. Ozta-ozta eraman ahal izan
 zuten Fegeo eta Sagaris³⁴ morroiek sorbaldeetan sareen
 zamagatik. Demoleo, ordea, behinola hura jantzita
 lasterka ibiltzen zen, troiar sakabanatuei segika.
 Hirugarren saria brontzezko eltze pareak eta erliebezko
 irudiz apainduriko zilarrezko katilu bikain batek osatzen
 dute.

²⁸ Urrez brodaturiko eszena Ganimedesen bahiketari buruzkoa da. Hura Troiako errege zinausle Laomedonteren seme gaztea zen. Jupiterren arranoak harrapatu egiten du, eta zerura eramaten du jainkoen aitaren koparia izateko. Oso ohikoa zen idazleen artean jantzi eta ohazaletan agertzen ziren gaiak aipatzea.

²⁹ Greziako Kreta uhartearen erdian dagoen mendia. Bertan dago Zeusek, ustez, Rea ezkutatu zuen kobazuloa.

³⁰ Eneasek.

³¹ Antenor izeneko agure troiarraren semea, Troiako gudan Akilesek akabatua.

³² Egungo Turkiako ibai bat, troiar lautadan dagoena.

Eta, jadanik, saritu guztiak harro zihozten euren
 opariekin, lokiak banda gorritz inguratuta, uharri
 izugarritik abilezia handiz ozta-ozta aterata eta arraunak
 galduta, ahul, arraunlari-ilara bat gutxiagorekin,
 Sergestok bere ontzia ohorerik gabe eta iseka artean
 zeramanean. Sarritan bideko luhesi batean
 harrapatutako sugea bezala, kobrezko gurrpil batek
 zeharka igarotzen duena, edo ibiltari batek harri mardul
 baten kolpez erdi hilda eta zaurituta utzi duena
 bezalaxe; alferrik ihes egin nahian, gorputzaren atal
 batekin kiribil luzeak egiten ditu basati, begietatik sua
 dariola, eta lepo txistularia gora altxatuz. Zauritutako
 beste zatiak herren atxikitzen du; korapiloetan konkortu
 eta bera bere gorputz ataletan tolestean da: horrela
 zetozen, makal, ontzia bultzatzen zuten arraunlariak.
 Hala ere, azkenean, haize-oihalak jaso eta portura
 sartzen da belak zabalik. Eneasek pozik ematen dio
 Sergestori promesturiko eskaingai, itsasontzia salbu
 eta kideak onik itzuli direla ikusita. Minervaren
 lanetan³⁵ aditua den mirabe bat ematen dio, jatorriz
 kretarra, Foloe³⁶ izenekoa, eta bularpean bikiak
 eradoskitzen dituen.

Maite López Las Heras

³³ Troia.

³⁴ Turnok hil zituen Eneasen bi ezkutari.

³⁵ Jakituriaren eta arteen jainkosa zen. Batzuetan, Pandoraren alabei emakumeen lantzat zituztenetan nola nabarmendu erakusten zieten, tapizgintzan edo ehungintzan, esaterako.

³⁶ Sergestori sari gisa emandako Kretako mirabe bat. Kreta, berriz, Egeo itsasoko uharte bat da. Greziako uharterik handiena. hain zuzen.



berria

- Fidel Castrok 1959ko urtarrilaren 8an gerrillarekin Habanan sartu eta boterea hartu zuen. Gobernu iraultzaile antolatu ondoren, estatubatuarren ondasunak nazionalizatu zituen. AEBen eraso eta boikoteari aurre egiteko, Castrok sobietarren babes ekonomiko eta militarra lortu zuen. 1976an estatuburu bihurtu zen. 1999an, Bill Clintonek estatubatuar konpainien filial atzerritarrei Kubarekin 700 milioi dolarretik gorako salerosketak egitea debekatu zien. Blokeo komertzialaren zabalpen hau munduko lehen lege transnazionala bihurtu zen. Hala ere, 2000. urtean Clintonek berak Kubari zenbait produktu humanitario saltzea baimendu zuen.



- 1999an, Oriok bigarren bukatu zuen Kontxan eta, 2000. urtean, bi jardunaldiak irabaziz lortu zuen bere 30. Bandera.
- 2000. urtean Udako Olinpiar Jokoen XXVII. edizioa Australiako Sydney hirian ospatu zen. Bigarren aldia izan zen jokoak Australian ospatzen zirela eta 11.000 parte-hartzaile baino gehiagok 28 kirol ezberdinetan parte hartu zuten. Lehen aldiz odol analisiak egin zizkieten kirolariei eritropoietina (EPO) atzemateko. *Nature* aldizkariak nabarmendu zuen kirolari batek nahiz eta EPOa hartu, jokoak hasi baino egun gutxi batzuk lehenago hartzeari utziz gero, antidopin froga gainditzeko "aukera handia" zuela.

Galtzaileak. 1895eko Donostiako estropada

Urtea, 1895garrena. Estropadak, Donostian.
Estropadak, fundamentuz, antolatzen zirela, 16 urte, besterik ez. Urte hartan, zumaiarrak esperantza handiarekin joanak. Bazuten motiborik. Inguruko koadriletan, indartsuenetakoa zen zumaiarrena. Han agertuko ziren, irteera puntuan bost *trinau*, txanda bakar batean bandera eta premioaren bila. Getariatik bat, Oriotik bi, Pasaiatik bat, eta bosgarrena... zumaiarrena. Patroia, *Iraundegi*. Zumaiarrak gorriz jantzita (gaur egun bezala). Huraxe izan zen, lehen aldiz, gorriz janzten zirena, harro-harro. Beste lau koadrila, zuriz jantzita, ohitura zen bezala.
“Jauna lagun dakigula”, esango zuen patroiak, eta, hori entzuteaz bat, denek ere “Aitaren” egingo zuten. Ondotik, horra hor non jartzen dituzten orekan, arraun guztiak. Denak jarriko dira agindu baten esperoan. Isiltasuna nagusi. Bihotz taupadak besterik ez da entzungo. Halako batean, patroiak garrasi batean: “JOOOOO!!!” Eta... han ziaztik eta baziaztik bost trinauak. Hasieran, aitzurrean. Segidan, gero eta luzeagoak, paladak. Oraintxe, horra hor non hartzen duten bere arraunketa, luze, garbi eta sendoa,

zilarrezko azaburu ereinez, bi ilaretan. Gureak eder begira ari dira arraun eta arraun. Besteak baino ere eder begirako.
Hala, balizan aurretik sartu ziren gureak, alde handiarekin. Garai hartako egunkariak ere jaso zuten bezala. Baina, atera, zer da eta... azkenak! Alde handiarekin. Garai hartako egunkariak ere jaso zuten bezala. Zumaiarrei baliza zuria egokitu, patroiak *kataratak* izan, ikusi ez bandera zuririk, eta jota pasa baliza, erabat. Hankekoa konturatu: “*Baina, han atzean laga degu-ta, baliza!*”.
Helmugarantz datozela, garai hartako egunkari batek “*Los de Zumaia con el natural cansancio venían los últimos*”. Hala ere ez ziren azkenak sartuko. Azken txanpan, bat laga zuten atzetik. Orioko trinauetako bat. Orioko trinau hartako patroiak irabaziko zuen Donostiako bandera, handik gutxira. Orioko beste trinauko patroiak lortuko zuen fama eternua bertso paperetan, handik sei urtera, balea harrapatuta. Irabazleak: getariarrak, *Katxapeo* zumaiarra hanketik zela. *Katxapeo*, getariarrekin ibiltzen zen itsasoan arrainetan, eta itsasoko koadrilarekin atera zen

estropadan. Izan ere, garai hartan gehiago zen itsasoko koadrila, eta ez herriko selekzioa (nolabait esatearren). Bigarren: pasaitarrak; eta, zumaiaarrak azken bigarren bi oriotarren tartean.

Bazkaldu dute, arrantzaleen auzoan. Kanta ederrak, bazkalondoan, umore onean. Sartzen dituzte, txopan, Zumaiaetik joandako mutil koxkorrak, eta... Zumaiaara arraunean, lasai ederrean. Bide osoan ez diote utziko kantuari. Estreineko kantua zumaiaarrena, alegia, egunero arrainetara arraunean joatean hutsik gabe kantatu ohi zutena. Kanta haren segidan, era guztietako errepertorioa. Batik bat, *Napolitanak*. Beti ere goian bukatu rik. Pavarotik baino gorago, zumaiaarrari gustatzen zaion bezala.

Iritsi dira arranplara, ilargitan, eta... han inor ere ageri ez. Ordurako herrian zabaldua omen zen, azkenak izan zirela gureak. Ez zen hala izan. Baina, gezurrak beti egin ohi du hegan.


Erabat lur jota zeudela, zer da eta, hemen non datorkigun, ilunpetik irtenda, herritar bat pontxearekin. (Txamel ote zen?) *“Hartu moteilak, merezi dezute-eta!”*

Eta hala goxatuko zituen lur jotako mutilak (agian igual esan beharko genuke “itsasoak jotako mutilak”).

Hurrengo egunetan, eta urtetan, han irtengo zuten arraunean egunero, egunekoa kentzeko itsasoari. Eta haietako batzuk, itsasoan, galduko ziren. Itsasoak ere egunero bizitza bat kentzen baitu, ordainetan. Baina, nik, orain, jakin nahi nuke, koadrila hura noiz sentitu zen galtzaileago: estropada bukatuta gero... ala arranplara etorrita, inor ere agertu ez zitzaien une hartan. Eta jakin nahi nuke pontxe hark zertaraino goxatu zituen mutilak. Bandera ahaztuta lagatzeraino, baietz!

Jexux Eizagirre Portillo

2001-09-02. Olariaga



2002-09-08. Olariaga



berria

- 1901eko maiatzaren 14an oriotar arrantzaleek Kantauri Itsasoko azken balea harrapatu zuten eta orduko gertakaria gogora ekartzeko, oriotarrek Bailearen Eguna herri-festa, bost urtetik behin, ospatzen dute Orion. 2020an alarma deia jo zuen *North Atlantic Right Whale Consortium* elkarteak, euskal baileen (*Eubalaena glacialis*) 356 buru baizik ez zirela geratzen itsasoan. Desagertzeaz dagoen zetazeo horixe da Erdi Aroa arte Euskal Herriko kostaldean erruz agertzen zen balea.
 - 2002an Castrok, bigarren aldiz jarraian eta bi jardunaldiak irabazita Kontxako Bandera eskuratu zuen.



berria

- 2002ko azaroan hondoratu zen Galiziako kostaldean *Prestige* ontzia, barruan 77.000 tona fuel zituela. Kantauriko Itsasoko kostaldean 2003ko urtarrilean eta otsailean euskal arrantzaleek berdelaren kanpaina galdu eta galipota arrantzatzen ibili ziren; itsasoan 21.000 tona batu zituzten eta lurrean 3.000. 215 itsasontzi eta 1000 arrantzale inguru aritu ziren garbiketan. Espainiako eta Galiziako gobernuen jarrera salatzen manifestazio jendetsua egin zuten Madril, *Nunca Mais* plataformak deituta.
- Astillerok bere historiako lehenengo Kontxako Bandera irabazi zuen. Kontxan distantzia neurtzeko **GPS** sistema erabili zuten lehenengo aldiz.

Mundua Gerran eta 1918ko gripe espainiarra

1918. urtean, hilkortasun handiko “espainiar gripea” izendaturiko gaitzak, mundu osoan eduki zuen eragina, 15 eta 25 milioi heriotza eragin zituelarik. Gaitzaren jatorria ustez Estatu Batuetan zegoen eta baliteke Lehen Mundu Gerran borrokatzera etorritako soldadu amerikarrek Europara ekarri izana.

Bermeon, 1918ko azaroan, gripe espainiarra deitutakoak 23 hildako eragin zituen. Pandemiaren bigarren olatua zen 1918ko udazkeneko hau. Lehenengo olatuak, aurreko maiatzekoak, ez zuen hildakorik utzi Bermeon. Gasteizen maiatzean 10era arte ez zen iritsi eta urrian 200 hildakoaren langa gainditu zuten. Irunen abuztua arte ez zen hildako bat bera ere zenbatu eta soilik irailean 90etik gora hil zituen gripeak...

Laugarren urtez, amaigabeko Lehen Mundu Gerrak Europako gazteria odolusten jarraitzen zuen. 1914an hasitako gerra honetan Ipar Euskal Herriko milaka mutil gazte hil ziren Europako lubakietako lokatz artean. Iparraldeko etxe gehienetan negarra nagusi zen bitartean, Hegoaldeko euskaldun gazteak hilketa antolatu hartatik kanpo geratzeko zortea izan zuten.

Iparraldeko euskal gazteek heriotza nagusi zuten bitartean, hegoaldekoak beren jarduna eginbehar atseginago eta aberasgarriagoetara bideratzeko aukeraz ari ziren gozatzen, besteak beste, estropadetara. Gerra giroa Donostiara ere iritsi zen nonbait eta 1918ko estropada haiek Kontxan inoiz izandako gatazkatsuenetakoak izan ziren. Batetik, estropaden lehen egunean Donostiak eta Getariak izandako talkaren ondorioz, biak jokoz kanpo utzi beharrean, Getaria bakarrik kanporatu zuten. Zarautzek irabazi zuen, baina Donostiari kendu zion denbora baliogabetu egin zioten bigarren egunerako. Bigarren egun horretan Donostia nagusitu zen. Zarauzko zaharrek gogoan dituzte oraindik beren nagusiengandik entzun zituztenak estropada honi buruz; zarauztarrentzat 1918ko estropada mitikoa da, donostiarrek “lapurtutako” garaipena hain zuzen ere: lehen eguneko abantaila kentzeaz gain, bigarren egunean donostiarren “kabarra” zahar batekin egin behar izan omen zuten arraunean. Bestetik, oriotarrek etxean zuten gerra, elkarren artean liskartu zirelako geratu baitziren parte hartu gabe.



Kutxateka

1918ko irailaren 9an, La Voz de Gipuzkoa egunkarian argitaratutako lehenengo jardunaldiaren kronika.

Ikuskizun bizi atsegina erakusten zuten atzo goizean portu inguruak eta itsas borroka ikusteko hango begiratokirik onenek, baina aurreko urteetako estropadak kontatzean esandakoa errepikatzea baino ez litzateke izango giro hura deskribatzea. Gure bapore txikitik begiratuta, Urgulleko maldak, Santa Klara uhartea eta Kontxako hondartza lanpernaz josiak zeudela ematen zuen, lanperna handi-handiz gainezka, hainbestekoa baitzen bazter haietan pilatzen zen jende kopurua. Alderdi Eder parkea, Kontxako pasealekua, Igeldo mendiko jatetxea eta Urgull pasealekuaren zati berria bikain agertzen ziren, estropada-egunetan baino hartzen ez duten itxura paregabearekin. Asko ziren bapore txiki eta txalupa ugarietan Kontxako badia zeharkatzen zutenak, norgehiagoka hurbiletik ikusteko irrikaz, eta haien artean ez ziren gutxi emakumeak, zorabio gogaikarriaren beldurrik gabe itsasoratuak. Zerua belztuta zegoen eta ipar-mendebaldeko haizeak itsasoa harrotzen zuen.

Adi egoteko seinalea ikusita, lau ontziak lerrokatu ziren, mutilak prest, arraunak goian, abiatzeko seinalea noiz emango.

Halabeharra garaile

Hamaikak eta laurden aldean, tronpetak jo zuen, 52 arraun sartu ziren uretan ia aldi berean, eta, altzairuzko besoz ahalegin betean bultzaka, lau ontziak hasi ziren bizkor badiako urak zeharkatzen. Borroka ikusten ari zirenek arnasari eutsi zioten estu eta larri, zein traineruk aurre hartzen zuen jakin nahian. Laster uxatu ziren zalantzak. Donostiako ontzia aldentzen hasi zen besteetatik, Getariakoa hurbil zuela; atzerago, baina alde txikiz hau ere, Zarauzkoa zetorren, eta azkenik Pasai Antxokoa, gero eta atzerago, gero eta atzerago, besteek aurrera egin ahala.

Horrela pasa zuten barra, itsaskiak ekarritako olatu handien gainetik hegan. Borroka, hasieran, lehenengo bi traineruen artekoa izan zen batez ere. Traineru erdiko aldea baino ez zegoen haien artean, baina Zarauzkoa gero eta hurbilago zuten, haren eskifaiak egindako ahalegin handiei esker. Ziaboga-balizetara iritsi ziren azkenean eta hantxe jo zituen zorigaitzak donostiarrak. Ondo zebiltzan arraunean, eskola onarekin; baliza lehenbizi inguratzea lortu zuten getariarrei traineru eta erdiko aldea kenduz, baina hauek, biratzerakoan,

"Koruko Amabirjina" jo zuten branka aldean. Horrek geldiarazi egin zituen biak, eta Zarauzko trainerua, ezbeharra aprobetxaturik, denen buru jarri zen inolako oztoporik aurkitu gabe. Orduan hasi zen benetako borroka, etsiaren kontrako borroka, borroka titanikoa. Lehenbizi izan behar zutenek hurbil-hurbil zeuzkaten benetan lehenbizi zebiltzanak. Olatuak aprobetxatuz, txanpan jo eta jo ziharduten eta haien arteko aldea murriztuz joan zen, barratik gertu harrapatu eta pasatzea lortzeraino. Baina zarauztarrek bi olatu hartu zituzten ia segidan eta, bultzada horrekin urrutiraturik, ez zen berriz izan haiek harrapatzeko aukerarik. Donostiarrek sekulako ahalegina egin zuten, moduz egiten zuten arraun, kementsu, baina alferrik izan zen dena: zazpi arraunkadako aldeaz irabazi zuten zarauztarrek... Halabeharra izan zen garaile.

Emitza

Estropada amaitutakoan, epaimahaia bildu zen ziabogan gertatutako ezbeharra aztertzeko, Caballero itsas komandante jauna buru zuela, eta, hiru traineruen patroiei entzun ondoren, gehienen botoekin erabaki zuen lehenengo saria, 1.500 pezetakoa, Zarauzko "San Antonio" ontziari ematea —Juan Angel Lazkano zuen patroia—; bigarrena, 1.000 pezetakoa, Donostiako

"Koruko Amabirjiña"ri —Frantzisko Zubiaurre "Kiriko", patroia—, eta hirugarrena, 900 pezetakoa, Getariako "Elkano" 1. ontziari —Manuel Manterola, patroia—. Lehenengoak 20 minutu eta 4 segundo behar izan zituen ibilbidea egiteko, eta Donostiakoak, 20:14. Beste biak, eta Pasaiakoa batez ere, nahiko atzeratuta iritsi ziren helmugara. Estropada Donostiako traineruak galdu arren bere eskifaia horren erruduna ez zela ikusita, eta Zarauzko ontziak kalterik izan ez zezan, epaimahaiak erabaki zuen datorren igandean ohorezko estropada lehenengo bi lekuetan iritsitako traineruek jokatuko dutela, eskifaia truketuta, baina baldintza berdinetan, hau da, ez da kontuan hartuko nolako aldea kendu zion atzo Zarauzkoak Donostiakoari.

Itzultzailea: **Karlos Zabala**

Oharrak:

*Kontxako estropadak irailaren 8an eta 15ean egin ziren, eta, orduko egunkariak diotenez, pandemiak ez zuen eragotzi Gipuzkoako hiriburuan ikusle asko biltzea ikuskizunaz gozatzeko.

**Irailaren 15eko estropadan, Kirikok gidatutako "San Antonio" traineruak irabazi zion Zarauzko arraunlariak erabilitako "Koruko Amabirjiña" ontziari, 37 segundoko aldearekin.




Kutxateka



Frantzisko Zubiaurre "Kiriko" eta arraunlariak Mariano Zuaznabarrekin (Donostiako alkatea)

1918 Donostia
Martin Rikardo. Kutxateka



berria

- Kontxako lehen edizioa 1879an hiru traineruk jokatu zuten badiaren inguruan biraka (4.000 m): *Lekittiarra*, *Justina Santua* eta *Ondarroa*; lehenengoa Donostiako arraunlariekin osatua eta azken biak Orioko arraunlariekin. Erabilitako traineruak 600 eta 750 kilo bitartekoak ziren. Gaur egungo traineruek, aldiz, 201,8 (*Zierbena*) eta 209,4 kilo (*Bizkaitarra*) bitarteko pisua izaten dute.
- 125 urte ondoren, 2004an, San Jose traineruarekin Kontxako bi jardunaldiak irabazi zituen Astillerok, marka berriak ezarriz: 38:53.56 bi jardunaldiak batuz eta 19:23.23 (eremuko marka) lehenengo jardunaldian.



berria

• Irudi ahaztezinak eskaini zigun irailaren 11ko estropadak: traineruak brankaz ur asko hartuz eta poparean, berriz, zuzen gobernatu ezinik. Traineru guztien artean Hondarribikoa izan zen hobeki egokitu zena; Ama Guadalupekoa ziaboga eman ondoren, olatuen gainean, ikaragarritzko lantzadak hartuz, nabarmen aurretik sartu zen. Pedreña deskalifikatzean, Hondarribiak bere hamargarren Kontxako Bandera irabazi zuen. 37 urte ziren aurrekoa irabazi zuela. Jardunaldirik irabazi gabe, denborarik onena egitea lortu zuen.

1932. urte inguruko Zumaian jokaturako estropada baten kontakizuna

Herritar guztiak portuan zeuden, sanpedroetako ikuskizun garrantzitsuenaren zain: hastear zeuden estropadak. Lekeitio, Mutriku, Zarautz, Zumarroa¹ eta Pasaia lehiatuko ziren elkarren kontra.

Adituak hasiak ziren ordurako ontzi luze eta arinak aztertzen. Arraunlariak arrantzale gihartsuak ziren, belaunaldiz belaunaldi gogortuak, eta itsasoko eguzkiak belztuak.

Horrelako norgehiagokak kostalde guztian egiten dira, betiko arerioen kontra egiteko eta antzinako liskarrak konpontzeko. Apustu-grina estropadetan iristen da puntu gorenera, eta ikusleek azkeneraino babesten dute nork bere herriko taldea.

Juan topatu nuen Kilimon zubitik hurbil² —ostra gizenez josita zituen pilareak—, eta honela esan zidan: —Urte batean, Mutrikukoek zuten guztia jarri zuten jokoan Donostiako estropadetan: etxeak, altzariak, txalupak, baita lurra ere. Arraunlariak, herri osoaren ondasunak eskuetan, zin egin zuten irabaziko zutela edo hilko zirela.

¹ Frantsesezko originalean Zumaiaren ordez Zumarroa agertzen da beti.

² Kilimon zubia Zubiaundia izango da seguru asko.

Nahi gabe, barre egin nuen, halako ahoberokeria kastillanoa entzunda.

—Ez al didazu sinesten, jauna? Begira!... Haietako hiru hil ziren amaieran. Pasaikoek irabaziko zutela konturatu zirenean, begiak ilun jarri zitzaizkien, eta ikusmena lausotu... Barruan gelditzen zitzairen indar guztia besoetan ahitu zuten!... Hainbesteko indarrez egin zuten arraun, amaierako banderaren buia igarotzean arraunlarien erdiek odola botatzen zuten ahotik, lepoko zainak lehertuta!

—Eta irabazi egin al zuten?

—Galdu egin zuten... Traineru erdi baten aldearekin... Eta herri osoak galdu zuen haiekin batera.

Juanek eskua altxatu zuen.

—Hain egia da hori, jauna, hamabi urte geroago, Mutrikuko arrantzaleak oraindik ere zorretan daude.

—Horiek bai, Juan —esan nion—, horiek bai gizonak... Juanek modu zehaztu ezin batean begiratu zidan eta, lurrera txistu egin ondoren, erantzun zidan:

—Gizonak ez, kirtenak!

Errioko lehen txandek ikusmira sortu zuten portuan, baina ohorezko txanda itxaro zuten guztiek.

Itsasoko hizkeran, kostalde guztietan, zain egotea itxaro izatea da.

Azkenean, hasteko pistola-tiroa entzun zen eta traineruak ziztuan atera ziren. Ibilbidea bokaletik hasten zen, eskoileratik pasa, barraren amaieraraino iritsi, eta Getariarako norabidean zegoen buia batean ziaboga egin behar zen. Guztira lau kilometro baino ez ziren, baina bakoitzak etapa baten balioa zuen.

Bost traineruak berehala hasi ziren batzuk besteetatik urrutiratzen eta haien arteko tartea handitzen ari zen, itsasora hurbildu ahala.

—Haize ederra dago —esan zuen Juanek—, ipar-mendebaldetik dator! Marearen kontra doa.

—Eta?

—Horrela, barra gogorragoa egiten da eta zailagoa da handik pasatzea.

Olatuak loditzen hasten ziren azpitik, gero бага handi paralelotan zabaltzen ziren, eta denek batera kostalderantz egiten zuten, bizkarra okertuz.

Parolmuturrera iritsi baino pixka bat lehenago, gailurra aparrez lazten zitzaien olatuei.

Haien mendebaldeko erdia kai-muturraren aurka hausten zen, eta ekialdekoak Argorrieta aldera³

jarraitzen zuen. Oztopo marmarti horrek bata bestearen atzetik jarri zituen traineruak, urezko muinoen arteko zuloak berehala harrapatuta. Halako batean, lehenengoa agertu zen bigarren olatu-gailurraren gainean, eta beste guztiak gero. Segituan egongo ziren bost ontziak nolabaiteko baretasunean.

—Han, punta hartatik —hasi zen Juan, Izustarri seinalatuz—, 1917. urtean, itsaspeko ontziak hornitzen zituzten alemaniarren aldekoek. Muinoaren gainean dagoen txabola hartan gasolinaz betetako upelak zeuden, gauetan portuko denda batetik astoz igota... Txipiroitatik berandu itzultzen nintzen egunetan, ondo ikusten nuen itsasotik nola egiten zituzten seinaleak kotxe baten faroarekin.

—Baina neutraltasuna? Eta agintariak?

Juanek barre egin zuen.

—Zaindariak gor zeuden, eta mugazainak itsu.

—Ziur al dakizu itsaspekoak zeudela Zumarroako uretan?

—Bai, jauna. Guztiz ziur nago; izan ere, orain portuan usteltzen ari diren gerrako bi abisu-ontzi frantsesak alemaniarrek hondoratutakoan artean agertzen dira, eta nire begien aurrean ikusi nuen nola txikitu zuten kanoikadaz Senegaldik etorritako ontzi frantses bat.

³ “Santiago aldera” izango da seguruenak.

Ni haurra nintzen orduan, eta aulki baten gainera igo nintzen. Patioaren mutur batean geunden, eguzkiak ondoen ematen zuen tokian. Eskifaiaiko gehienak beltzak ziren. Bi txalupa atera ziren ontzitik, eta arraunean egin zuten hondartzarantz. Alemaniarrek ontzirik handiena hondoratu zuten, eta kalteak eragin beste bati. Azken obusa kostaldeko harkaitzetan erori zen. Kapitaina salbatu egin zen, burua zaurituta, bai eta gizonetako bi ere. Orduz geroztik, kapitaina emaztearekin herrikoei eskerrak ematera etortzen da urtero.

—Eta ontzia?

—Kakahueteak garraiatzen ari zen ontzi handi bat zen. Zortzi egunez, kostalde osoa kakahuetez josita egon zen... Inguruko haur guztiak beherakoarekin egon ziren, eta heldu asko ere bai...

Bat-batean, Juan isildu egin zen.

—Hara! Hara han!

Bere zapelatz-begiekin lehen trainerua ikusi zuten apar artean.

—Zumarroa! —oihukatu zuten batzuek.

—Ez, ez! Pasaia!

Oihuak bikoiztu egin ziren.

—Zumarroa! Zumarroa!

Juanek begiak tolestu zituen oharkabea.

—Batera ari dira barra pasatzen.

Hala zen, bi traineruak aldi berean agertu ziren barraren atzean, eta batera desagertu. Berriz bistaratu ziren, eta porturantz bultzatu zituen itsasoak.

Deseginda zeuden arraunlarien aurpegiak. Odolberoek more-more, eta urdurienak zuri-zuri. Lehertzeko zorian zeuden gizon haien gorputz-atal guztiak: giharrak, zainak, bihotza... Patroiek zutik maneiasten zituzten ontziak, grina izugarriarekin aginduz, biraoka bezala.

—Zumarroa! Zumarroa! Zumarroa!...

Histeria kolektiboak jendetza osoa menderatu zuen.

—*Sangre de Dios y muerte!*

Zetazko eta aparrezko zimurrak...

Baina pasaitarrek irabazi zuten zazpigarren aldiz.

Oharra:

Liburua 1936koa da, izenburu orijinala "*Jesusa de Guipuzcoa*" du (euskaraz: *Jesusa Gipuzkoakoa*), eta **Georges Barbarin** da idazlea.

1932. urte inguruko Zumaia erakusten du.

Euskarazko bertsioa **Maia Ossa Risanen**-ek egin zuen, eta edizioa **Baleike** kultur elkarteak egin zuen, **Zumaiako** Udalaren babesarekin. Lana Zumaiako Udaleko euskara teknikariak koordinatu zuen: **Xabier Azkue Ibarbia**.



1932 Donostia
Paskual Marin. Kutxateka



berria

• Euskal Herriko multzo epigrafiko nagusia da Iruña-Veleia aztarnategian aurkitutakoa, eta erromatarren garaia iruzko munduko garrantzitsuenetakoa, Pompeian, Erroman eta Vindolandan (Ingalaterrako iparraldean) agertu direnen parekoa. Gure herrian kristau munduaren agerpena pentsatu baino goizago gertatu zela erakusten dute aurkitutako piezek. Hala zirudien 2006ko udaberrian; berehala hasi ziren zalantzak agertzen, ordea. 2020an Eliseo Gil aztarnategiko arduraduna zenari bi urteko zigorra ezarri zioten, iruzur egitea, dokumentuak faltsutzea eta ondarearen aurkako delituak egitea leporatuta. 2021eko otsailean SOS Iruña-Veleia taldeak adierazitakoaren arabera, epaiak ez zuen frogatu grafitoen faltsutasuna, eta, ondorioz, ezta autoretzat ere.



- 2007an lehenengo jardunaldian Oriok bigarrenari (Urdaibairi) 11 segundo atera zizkion. Bigarren igandean, Ohorezko txanda irabazi ondoren, bere 31. Kontxako Bandera lortu zuen.

2020ko uztailaren 5ean, BERRIA egunkarian argitaratutako Coruñako 1. jardunaldiaren estropadetako kontakizunak.



Duela bost urte bezala hasi da

Hondarribiak Coruñan irabaziz ekin dio Eusko Label ligari, eta hori azkenekoz 2015ean egin zuen.

- Gaur erabakiko da bandera, eta 1,90 segundo daude garailearen eta Santurtziren artean.

Aitor Manterola

Datua baino ez da, eta atzo hasi zen Eusko Label ligan zer gertatuko den azaltzeko ez du balio, goiz delako, baina Coruñako (Galizia) estropadan atzo gertatu zenak badu antzik Malagan (Espainia) 2015ean jazo zenarekin: atzo,

eta duela bost urteko ekainaren 28an, Hondarribia garaile. Orduko hartan, hasi bezala amaitu zen liga, eta Mikel Orbañanosenek irabazi zuten lehiaketa.

Oraingoz, atzokoak ez dio ligarik ematen, ez eta bandera ere, bi egunetara jokatzeko delako Coruñakoa. Gaur ere atzokoa bezalako lana egin beharko du Ama Guadalupekoa traineruak, gain-gainea duelako Santurtziko Sotera. 1,90 segundo baino ez daude bien artean, eta gaur eguerdian (12:10) erabakiko da. Azkeneko txandan izango dira biak, Urdaibarekin eta Oriorekin batera, baina bi horiek zailxeago dute azken garaipena eskuratzeko aukera, 16na segundo galdu zituztelako atzo Hondarribiarekiko.

Gaurko egoerara heltzeko atzokoa jokatu behar izan zuten lau talde horiek eta gainerako zortziek. Coruñako eremua «infernua» izan ohi da, asteen Beni Silva Cabo da Cruzeko entrenatzaileak definitu duen bezala, baina atzo ez zen ipar edo ipar-ekialdeko haize zakarrik, eta leun ez bazegoen ere itsasoa, arraunean egiteko baldintzak on-onak izan gabe, gaizto ere ez zegoen eremua. Txandak zozketa bidez banatu zituzten aurreko asteen, eta Hondarribiari azkenekoan egokitu zitzaion, Urdaibai, Zierbena eta Kaikurekin batera. Ordurako, Santurtzi hegan egina zen bigarren txandan, estropada erditik aurrera, eta aise botata zeukan Oriok lehen txandan egindako denbora, 14 segundo pasatxoan. Orbañanosenek bazekiten hasieratik

hortzak estutu beharko zituztela, eta bai egin ere.

Bigarren kalean zen Hondarribia, eta aurreko txandetako joera ikusita, kanpora joateko ez ziren egokiak lehen bi kaleak. Baina talde onei halakoek kalte egitea zailagoa izaten da, edo bestela, baldintzak zeharo aldatu ziren azkeneko txanda jokatzeko. Kontua da hasi eta berehala txikitu zuela estropada, eta ez zuen lan samurra horretarako, Zierbena zeukalako alboan, hirugarren kalean, ustez kale hobearen zenetik. Urdaibai lehen kaletik zihoan. Datu honek ederki azaltzen du zertara aterata zen Hondarribia: hirugarren minuturako bosna segundora zeuzkan txandako bi aurkari zitalenak, eta Kaikuri zortzi zizkion sartuak. Txikizioa iragartzen ari zen iazko ligaren bigarren sailkatu zen taldea, eta ohiko moduari helduta ari zen egiten: arraunean luze, ondo bukatuz, eta presarik gabe. Eta iazko taldetik hiru berrikuntzarekin, hirurak istribor aldean: Ander Legazkue debutaria eta Santiagotarrak taldean hazitako arraunlaria, eta Alain Osanbela eta Gaizka Gorostiaga, aurrenekoa Donostiarran iaz, eta bigarrena Getarian.

Txandan aurkaririk gabe geratu zen segituan, baina bazuen bat handi-handia bigarren txandan, eta Santurtzik baino segundo bat motelago eman zuen

aurreneko ziaboga. Bigarren luzean, olatuxkak trebetasunez baliatuz, aurea hartu zion Santurtziri bien arteko erreferentzietan, eta bigarren ziabogan, zortzi segundo aurretik zen Hondarribia. Alde ona zen, baina erronka ere parez pare zeukan, Santurtzik aurretik zer eta non egin zuen ikusita. Bizkaitarren lan bikainari neurria Hondarribiak berak jarri zion hirugarren luzean, bi segundora murriztu zelako bien arteko koska.

Azkeneko luzean erabakiko zen dena, eta erabaki zen bai, atentzioa eman zuen egoera bat eta guzti. Izan ere, Santurtzik bere txandan, barrurako luzeetako azken metroetan atera zuen sua, eta azkeneko luzean, laugarren kaletik sartu zen, barruko kaleetatik hobeto etortzen zela kontuan izan gabe. Hondarribiak ez zuen Santurtzirena egin, bere kale ingurutik sartu zen, eta azkenean, 1,90 segundo izan zituen alde, hirugarren ziabogako alde bertsua.

Donostiarraren erreakzioa

Norabideek eta kaleek zalantza gutxiago eragin zuten lehen bi txandetan, Santurtziren salbuespena aparte lagata. Hobeto joan ziren kanporantz kanpoko bi kaleetakoak, eta hobeto etorri barrura barruko bietakoak. Oriori, hirugarren kaletik, esaterako,

azkeneko luzean ez zitzaion olatu onik etorri, eta hirugarren ziabogan azkena zen Donostiarrak, hamalau segundo jan zizkion azken luzean lehen kaletik, lan bikaina eginez.

Bigarren txandan, Isuntza joan zen aurrenekoetik, eta barrurako luzeetan asko errekupekatuz, hirugarren egin zuen, Santurtziren eta Caboren atzetik. Laugarren kaletik zihoan Zarautzi aurea hartu zion barruko bi luze horietan. Halakorik egin ez zuena, ez joaten eta ez etortzen, Zierbena izan zen. Kolpe latza hartu zuen, eta okerrago izan zitekeen, Zarautz azken-aurrenari bost segundo baino ez zizkiolako atera.

CORUÑAKO ESTROPADA 1J

1.	Hondarribia	20:11.80
2.	Santurtzi	1,90era
3.	Urdaibai	16,24ra
4.	Orio	16,38ra
5.	Donostiarra	23,14ra
6.	Cabo	32,10era
7.	Zierbena	33,52ra
8.	Isuntza	35,02ra
9.	Ares	35,28ra
10.	Ondarroa	36,36ra
11.	Zarautz	39,24ra
12.	Kaiku	56,90ra



2020 Ares
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Oriok iaz utzitako lekuan heldu dio Euskotren ligari

Aurreneko jardunaldia irabazi du Coruñan, eta aurreneko lau puntuak batu ditu • Donostiarrak oso maila ona eman du, 4,62 segundora.

Aitor Manterola

Oriok irabazten jarraitzen du Euskotren ligan. Atzo ere aurrena izan zen, Coruñako (Galizia) estropadaren lehen jardunaldian, eta iazko garaipen segida luzeari beste katebegi bat gehitu zion. Joan zen urtean, bigarren jardunaldian egin zion ihes udako garaipen bakarrak, eta ordutik, dena irabaztea lortu zuen, txapelketak eta Kontxako Bandera barne.

Ondo lortu zuen menderatzea bere burua, lehenik eta behin. Hasiera kaskarra eman ziolako atzoko estropadari. Semaforoa berde jarri zenean, trainerua ondo jarri gabe izan balu bezala harrapatu zion hasierak, eta aurreneko arraun kolpeetan, beste hiru taldeek aurrea hartu zioten: Hondarribiak lehen kaletik, Arraun Lagunakek bigarrenetik, eta Donostiarrak hirugarrenetik. Azkeneko talde horrek aukera izan zuen Orio atzerago lagatzeko aurreneko metro horietan, baina ez zuen lortu, eta bigarren minuturako, Nadeth Agirre patroitzan duen taldea

jarri zen estropada buruan.

Horrela jarraitu zuen lanak amaitu bitartean. Eremua txar-txarra ez bazegoen ere, zikina zen kanpoaldean, eta arraunean ondo egin beharra zegoen gauzak bere onetik ez ateratzeko. Orio eta Donostiarrak ondo moldatzen ari ziren zeregin horretan, baita Hondarribia ere. Lehen luzeko lan erdiak ondo pasatuta zituztenean, Nerea Perez patroiairen arraunlariak bost segundo galerarekin ziren Oriorekiko, eta Donostiarrak hiru baino ez zizkien kentzen. Baldar zihoana Arraun zen, Galiziako eremu hori batere gustuko ez duela agerian utziz. Laugarren minutu eta erdirako, hamar segundo galduak zeuzkan Oriorekiko.

Estu zihoazen lehen bi sailkatuak ziabogaren bila, bizpahiru segundoren barruan biak ere. Hirukoa izan zen aldea lan erditan Orioren alde. Txikia, inondik ere. Ez zegoen atzoko estropada erabakita. Atzetik, Hondarribiak bederatzi segundo zeuzkan galduta

Oriorekiko, eta hamalau Arraunek. Bi talde horiek atzoko garaipenaren lehiatik kanpo ziren, baita banderarenetik ere.

Bigarren luzearen lehen erdian, Xanti Zabaletak zuzentzen duen taldeak koska handitu zuen Maialen Arrazola arraunlari eta entrenatzailearen kuadrillarekiko, eta bost segundora ere igo zen bien arteko aldea. Hortik aurrera, ordea, Donostiarra hasi zen aurkari zuzenari gaina hartzen, eta bi segundora ere jaitsi zuen aldea. Baina azkenean, 4,62ra igo zuen Oriok, eta horixe du fabore gaurko, bandera zeinek irabaziko ariko direlako atzoko lehen biak. Egundoko ezustea litzateke Hondarribiak edo Arraunek trapua astintzea, atzean geratu zirelako atzo:18 segundo galdu zituzten aurrenekoek, eta 23 iaz ligan bigarren izan zen taldeak. Hain zuzen, atzoko konturik deigarriena horixe izan zen, Arraunek ez zuela maila eman, neguko estropadetan erakutsi zuen hori.


Beste muturrean Donostiarrena dago aipatzeko. Taldea alferrik ez duela indartu erakutsi zuen, eta bide horretatik segitzen badu, estu hartuko du Orio. Gaur bertatik hasita, Coruñan zeinek irabaziko ariko baitira (11:40).



Nerea Badiola, atzoko garaipena ospatzen. Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

CORUÑAKO ESTROPADA 1

1.	Orio	11:12.80
2.	Donostiarra	4,62ra
3.	Hondarribia	18,02ra
4.	Arraun Lagunak	23,14ra



berria

- 2008an Castrok ez zuen huts egin, eta Kontxako Banderako lehen jardunaldian Urdaibairi kendutako 18 segundoko aldea baliatu zuen laugarrenez irabazteko. Ohorezko txanda Oriok irabazi zuen, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Emakumezkoetan Galizia-Rias Baixas nagusitu zen.



- 2009an, 27 urteren ondoren Kaikuk (Korta entrenatzaile zela), “galaktikoak” deitutako arraunlariekin, bi jardunaldietan denbora onena eginda bere bosgarren Kontxako Bandera irabazi zuen. Jose Luis Kortak 2001ean, 56 urterekin, jokatu zuen azken Kontxako estropada, geroztik entrenatzaile lanean jarraitu badu ere. 16 aldiz eskuratu zuen Kontxako Bandera; Oriorekin 1970ean lehena eta 2012an Kaikurekin azkena. Kontxako historian bandera gehien irabazi duen kirolaria izan da. Emakumezkoetan Galizia aldera joan zen bandera, bigarren urtez jarraian.

EUSKO LABEL LIGA

Parekatua joan da liga amaierara arte. Denboraldi-aurreko hilabeteetan ziurgabetasuna oso handia izan zen eta zalantzan egon zen Eusko Label Liga martxan jarriko zen ala ez. Azkenik, arraun ligaren beste edizio bat abiatu zen Galiziako uretan, eta, orduz geroztik, nahiz eta COVID-19ko pandemiak aparteko neurriak hartzera behartu, zirrarez betetako arraun-denboraldia izan da. Santurtzi, Hondarribia, Urdaibai, Orio, Zierbena eta Donostiarra: sei ontzik irabazi dute banderaren bat, eta berdintasuna nagusi izan da azken jardunaldira arte. Hainbat talde izan dira lehiaketako lider, eta jaitsiera saihesteko borroka ere sutsua izan da, Zarautz eta Ares borroka bizian, salbazio matematikoa lortzeko asmoz.

Azken txanpara ondoen iritsi diren traineruak Santurtzi eta Hondarribia izan direla esan liteke. Hondarribiak estropezu egin zuen Coruñan, baina, pixkanaka gora etorri, eta txapeldun izateko aukera izan zuen azken jardunaldira arte. Ama Guadalupekoak garaipen batekin hasi zuen denboraldia, eta maila bikaina erakutsi du beste uda batean ere. Baina erregularitasunak saria izaten du: Sotera ibili da erregularren, eta Santurtzik bere historiako lehenengo liga irabazi du.

Xabier Castrillon



2020 Ares
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Coruña Hiriko IV. Bandera

CORUÑA 1J

2020KO UZTAILAREN 4A

Eremuko errekorra: 19:27.78 (2.k) **Orio** 2019an

Denborak:


Hondarribia: 20:11.80 (3.tx/2.k)

Santurtzi: 20:13.70 (2.tx/3.k)

Bermeo-Urdaibai: 20:28.04 (3.tx/1.k)

Entr.: M. Orbañanos

Ama Guadalupekoa



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2017/07/15. Coruña Hiriko I.Bandera	Urdaibai: 22:07.12 (1.k)
2018/07/07. Coruña Hiriko II.Bandera (1J)	Urdaibai: 20:28.90 (4.k)
2019/07/06. Coruña Hiriko III.Bandera (1J)	Orio: 19:27.78 (2.k)
2020/07/04. Coruña Hiriko IV.Bandera (1J)	Hondarribia: 20:11.80 (2.k)

Azkeneko luzean erabaki zen dena, atentzioa eman zuen egoera bat eta guzti. Izan ere, Santurtzik bere txandan, barrurako azken luzean, laugarren kaletik sartu zen, barruko kaleetatik hobeto etortzen zela kontuan izan gabe. Hondarribiak ez zuen Santurtzirena egin, bere kale ingurutik sartu zen, eta azkenean, 1.90 segundo izan zituen alde, hirugarren zia bogako alde bertsua.

Aitor Manterola

Berria egunkariako kazetaria

Oharrak: *Harrobikoak: 7. ****G.Gorostiagak** eta **A.Legazkuek**, TKE ligan debuta egin zuten.

B traineruko harrobiko batek A taldean hiru estropada jokatzen baditu, ezingo du gehiago bigarren taldean arraun egin.

lazko taldetik lau berrikuntzarekin atera zen Ama Guadalupekoa. Julen Fernandez aurrekalaria (Donostiarran iaz) eta hiru istribor aldean: Ander Legazkue debutaria, Santiagotarrak taldean hazitako arraunlaria, eta Alain Osanbela eta Gaizka Gorostiaga, aurrenekoa Donostiarran iaz, eta bigarrena Getarian.

Hondarribia lider hasi da bosgarren aldiz ligaren historian. Lehen aldia 2006an izan zen, Riveiran eta hurrengo egunean Boiron irabazi zuenean. 2012an lehen estropada irabazi zuen Bilbon, baina ez zen puntuagarria, eta hurrengoan Zierbenan irabazi zuen. Hiru urte geroago sailkapenaren buruan jarri zen Malagan eta 2016an errepikatu egin zuen Sevillan.

Coruña Hiriko IV. Bandera

CORUÑA 2J

2020KO UZTAILAREN 5A

Eremuko errekorra: 19:27.78 (2.k) **Orio** 2019an

Denborak:

Orio: 20:45.44 (3.tx/1.k)

Donostiarra: 20:45.54 (2.tx/1.k)


Santurtzi: 20:46.44 (3.tx/4.k)

Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2018/07/08. <i>Coruña Hiriko II. Bandera</i> (2J)	Urdaibai: 21:30.10 (4.k)
2019/07/07. <i>Coruña Hiriko III. Bandera</i> (2J)	Hondarribia: 20:33.86 (4.k)
2020/07/05. <i>Coruña Hiriko IV. Bandera</i> (2J)	Orio: 20:45.44 (1.k)

Hondarribia, azken postuan lehen aldiz. 2003an liga hasi zenetik, Ama Guadalupekoa ez zen inoiz estropada bateko azken postuan egon. Bere erregistrorik txarrenak 2008an Pedreñan, Moaňan eta Bilbon lortutako azken aurreko hiru postuak ziren. Azken bosturtekoan, sailkapenik txarrena seigarren postua izan zen Donostian (2019) eta Moaňan (2018).

Oharrak: *Harrobikoak: 6.

Hondarribiari zortzi puntura jarri zaizkio Eusko Label ligako lehen bi postuak.



Banderaren irabazlea		Guztira	Aldea
1. 2017. Urdaibai		22:07.12	
2. Hondarribia	Estropada bakarra	22:07.26	00.14
3. Orio		22:09.96	02.84

	1J	2J	Guztira	Aldea
1. 2018. Urdaibai	20:28.90	21:30.10	41:59.00	
2. Hondarribia	20:43.82	21:49.26	42:33.08	34.08
3. Orio	20:59.18	21:39.02	42:38.20	39.20

1. 2019. Orio	19:27.78	20:42.32	40:10.10	
2. Hondarribia	19:39.18	20:33.86	40:13.04	02.94
3. Santurtzi	19:31.84	20:46.16	40:18.10	08.00

1. 2020. Santurtzi	20:13.70	20:46.44	41:00.14	
2. Orio	20:28.18	20:45.44	41:13.62	13.48
3. Donostiarra	20:34.94	20:45.54	41:20.48	20.34

«Galiziako emaitza txarra ondo etor dakiguke, gogoa baitago taldean, eta erakusteko bagarela. »

Mikel Orbañanos

Hondarribiko entrenatzailea

*Gaur egun gure goi mailako arraunlariak direnek nerabezaroan kirola eta ikasketak uztartu behar izan zituzten. Nahiz eta profesionalak ez izan, astean sei egunetan entrenatzen dute. Badakite elikadura eta atsedena oso garrantzitsuak direla. Arraunlari batentzat, arraunetik bizitzea, kirolari profesionala izatea oso zaila denez, % 99k ez du profesionaltasunera jauzia ematen. Askotan presiopean bizi dira. Kirola ez da bizitza osorako, gure arraunlari gehienak 28 eta 36 urte bitartean erretiratzen dira. Eta gero zer?**

Xabier Castrillon

Oharra:

*Ur Handietan programan: presiopean dokumentalak gai hau jorratzen du.



2020 Coruña 1J
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Coruña 2J
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

VIII. CaixaBank Bandera

DONOSTIA

2020KO UZTAILAREN 11

Eremuko errekorra (ligan): 19:39.14 (2.k) **Urdaibai** 2018an


Denborak:

Donostiarra: 20:53.02 (3.tx/4.k)


Santurtzi: 21:03.92 (3.tx/1.k)

Orio: 21:04.28 (3.tx/2.k)

Entr.: I. Makazaga



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2004/08/28. Trintxerpeko X. Bandera	Hondarribia: 20:09.51 (4.k)
2007/07/15. IX. Telefonica Bandera.	Castro: 20:05.81 (2.k)
2008/07/13. X. Telefonica Bandera	Orio: 20:29.89 (4.k)
2010/07/04. XIII. Movistar Bandera	Orio: 20:28.14 (3.k)
2013/07/14. II. Eusko Label Bandera	Hondarribia: 21:20.78 (4.k)
2014/07/13. III. Eusko Label Bandera	Kaiku: 19:49.14 (1.k)
2015/07/12. IV. Eusko Label Bandera	Orio: 20:13.66 (2.k)
2016/07/10. V. Eusko Label Bandera	Hondarribia: 20:00.26 (2.k)
2017/07/09. I. Giroa Velloia Bandera	Orio: 21:00.84 (1.k)
2018/07/14. XI. Donostiarra Kaiarriba-Amenabar Bandera	Urdaibai: 19:39.14 (2.k)
2019/07/13. XII. Donostiarra Kaiarriba-Amenabar Bandera	Orio: 20:21.36 (2.k)
2020/07/11. VIII. CaixaBank Bandera	Donostiarra: 20:53.02 (4.k)



Guztira: 12 estropada. TKE ligan, 2003ko, 05eko, 06ko, 09ko, 11ko eta 2012ko estropadak ez ziren jokatu.

Oharra: *Harrobikoak: 4

Santurtzik eskuratu zuen sailkapeneko lehen postua, aurreneko aldiz. Zierbena zazpigarren izan zen, eta Hondarribia bederatzigarren; bi talde horiei ia ihes egin zien ligak.

SAILKAPENA					
1. Santurtzi	32	5. Cabo	20	9. Ares	14
2. Orio	31	6. Zierbena	19	10. Ondarroa	14
3. Donostiarra	31	7. Hondarribia	17	11. Zarautz	10
4. Urdaibai	23	8. Lekittarra	17	12. Kaiku	6

Donostia. (Gipuzkoa)
Biztanleria: 182.391
 (donostiarrak)

Ondareak. Elizak: San Bizente (XVI.m. gotikoa), Santa Maria (XVII.m. barroka), Artzai Onaren katedrala (1888 neog.).
Museoak: Aquarium, Euskal Itsas museoa, San Telmo, Tabakalera. **Eraikuntzak:** Aiete eta Miramarko jauregiak, Udaletxea, Maria Cristina hotela, Viktoria Eugenia antzokia, Kursaal Berria. **Eskulturak:** Haizearen Orrazia, Hondalea, Eraikuntza hutsa...



Kaiarriba Arraun Elkartea. Sorrera urtea: 2008. **Traineruen izenak:** Bantxa eta Torrekua

Kontxako Banderak: 14. Lehenengoa: 1879an. Azkena: 1950ean.

Ligak: 0. Ligan irabazitako estropadak: **2G**izonak/**2E**makumeak

Gipuzkoako Txapelketak: 0

Euskadiko Txapelketak: 0G/1E. 2020an

Donostia Arraun Lagunak. Sorrera urtea: 1965. **Traineruaren izena:** Lugañene. Ligan irabazitako estropadak: **2E.** **Euskadiko Tx.: 1G**

Zurriolako hondartza. Hiriko kirolzaleek gehien estimatzen duten hondartza da, surferako olatu bikainak sortzen dira, eta urte osoan surflariak ikus daitezke bertan. Kursaal berria egin zutenetik, pasealeku eder bat du, Monpaseko ia puntaraino.

Kontxako badia. Donostiari hainbesteko sona eman dion plaza natural horrek ez du aparteko aurkezpenik behar. Kontxako eta Ondarretako hondartzek, Igeldo eta Urgull mendiek eta Santa Klara uharteak osatzen dute hainbaten ametsetako lekua. Ibilbide erraz batekin lotu ditzakegu denak. Urgull mendiko gotorlekutik eta Igeldo parkeko dorretik ikuspegi ederrak daude. Ondarreta hondartza zeharkatuta eta aurreraino jarraituta Haizearen Orrazira iritsiko gara.

Mendizorrotz. Donostiatik Oriora, Igeldotik pasatuta, ia 16 kilometroko ibilbidea egin daiteke, itsasertzetik zein mendiaren lepotik. Kostaldeko tarte honek zenbait kala eta senaia ditu –Tximistarri, Biosalbe eta Agiti, besteak beste–, eta Orioko Antilla hondartza du amaieran. Igeldotik Oriora doan errepidetik joanez gero, Lusarbeko atsedenekua dago bide erdian. Egun pasarako leku atsegina da, jatorduak egiteko mahai eta guzti.

Tximistarriko kalak. Harkaitzez osatutako kala bat da. Ez dago inolako zerbitzurik, eta nahiko ur eramatea komeni da. Itsasbeheran, igeri egiteko putzu zulo ederrak sortzen dira –itsasoa bare dagoenean–. Kontxako jendetzarengandik ihes egin nahi duenarentzat aukera bat izan daiteke. Nudisten ohiko lekua ere bada.

Oharrak: Kontxa. Izena formari zor dio. **Santa Klara.** Klaratar mojek uharteko ermitan kokatu nahi zuten, eta hortik datorkio, hain zuzen, izena.

Gorka Zabaleta kazetari zumaiaarraren **121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO liburua** berria egunkariari esker ezagutu nuenean, konturatu nintzen euskal kostaldea ez nuela ezagutzen nahiz eta hondarribiarra izan. Liburuak aukera eman zidan hondartzak, ezkutatutako kalak, itsaslabarrak, begiralekuak, naturgune babestuak eta padura berriak aurkitzeko eta ezagutzeko.

Arraunzaleok urtero estropadak ikusteko zenbait bidaia gauzatzen ditugu eta estropada eremuak aztertzen hasi nintzenean, berehala liburu horretan agertzen diren interesgunez gogoratu nintzen, eta egun pasarako interesgarriak izango zirela pentsatu nuen.

Liburutik zenbait oinarritzko pasarte* hartu ditut, estropada eremuak kokatuta dauden hain kosta tarte laburrean ditugun hamaika bazter eder eta anitz hobeto ezagutu ahal izateko.

Oharra:

*Informazio horiek mapa guztiekin erlazionatuta daude, Bilbo eta Portugaletekoekin izan ezik, eta mapa bakoitzaren eskuineko orrialdean agertzen dira.

XXXVII. Petronor Bandera

ZIERBENA

2020KO UZTAILAREN 12A

Eremuko errekorra: 19:24.42 (4.k) **Urdaibai** 2014an

Denborak:

Hondarribia: 19:43.92 (1.tx/3.k)



Santurtzi: 19:47.98 (3.tx/4.k)

Zierbena: 19:48.22 (2.tx/3.k)

Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2012/06/30. XXIX. Petronor Bandera	Hondarribia: 20:18.24 (3.k)
2014/07/07. XXXI. Petronor Bandera	Urdaibai: 19:24.42 (4.k)
2015/08/30. XXXII. Petronor Bandera	Urdaibai: 19:37.18 (3.k)
2016/07/03. XXXIII. Petronor Bandera	Pasai Donibane: 19:52.20 (2.k)
2017/07/30. XXXIV. Petronor Bandera	Urdaibai: 19:35.74 (4.k)
2018/07/01. XXXV. Petronor Bandera	Hondarribia: 19:27.80 (1.k)
2019/06/23. XXXVI. Petronor Bandera	Orio: 19:25.92 (3.k)
2020/07/12. XXXVII. Petronor Bandera	Hondarribia: 19:43.92 (3.k)

Entr.: M. Orbañanos

Ama Guadalupekoa



Estropada eremua trapezio formakoa izanik, ontzi bakoitzak zegokion kaletik amaitu behar zuen.

Oharra: *Harrobikoak: 9

Jaiotzatik edo istripu batek eraginda urritasun fisikoren bat nahiz mentala duten emakume kirolariek hainbat aurreiritziri aurre egin behar izaten diete usu, baita zenbait oztopori ere: hala nola emakumeen eta gizonen arteko berdintasun falta edota diru laguntza eskasia. Gizarte inklusiboa lortzea dute xede.*

Mikel O. Iribar

Berria egunkariko kazetaria

Oharra:

*Berria 2021eko urtarrilaren 26an Kirol egokitua artikuluan gai hau jorratzen du.

Jendeak uste du laguntzak erraz jasotzen ditugula. Inork ez digu ezer oparitzen. Egiten duguna aintzat hartzea nahi dugu. Egun, familia askok ez dute desgaitasuna duten senideak argazkian ateratzerik nahi. Niri izugarrizko pena ematen dit.

Rakel Mateo

Triatleta

Gizonezkoek baino balentria handiagoak egitean, ez dugu izaten haiek bezainbesteko oihartzunik. Urritasun fisikoa nahiz mentala dugunon normalizazio soziala behar dugu, aukera berberak izan ditzagun.

Sara Carracelas

Igerilaria

Urritasunen bat duten emakume gehienek kirola egiteari uzten diote nerabezaroan, babesi gabe baitaude. Azken urteetan lehiaketa arloan, kirol egokitua ez da kirol ez egokitua bezain sexista.

Blanka Aranguren


Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko presidentea

Zierbena. (Bizkaia)

Biztanleria: 1.398 (zierbenarrak)

Ondareak. Antzinako mehatze-azpiegiturak: mineralak kiskaltzeko labeak, Gerente lakua.

La Barga inguruko kareharrizko orratzak. San Roman parrokia (XII. m.), 1880an zaharberritua.



Zierbena Arraun Elkarte. Sorrera urtea: 1882. Traineruaren izena: Zierbena

Kontxako Banderak: 0

Ligak: 0. **Ligan** irabazitako estropadak: 5

Bizkaiko Txapelketak: 5. Lehenengoa: 1969an. Azkena: 1991n.

Euskadiko Txapelketak: 1. 2020an

Zierbenako portuko hondartza. Abrako itsasadarraren ezker aldean garai batean zeuden hondartza guztiak desagertu egin dira, tamalez. Gaur egun, Zierbenako kirol portuaren babesean eraikitako hondartza artifizia baina ez dago aukeran. Uraren kalitatea, eskasa da.

Punta Lucero mendia. Punta Lucerok begiratoki bikaina eskaintzen du. Bizkaiko mendebaldeko kostaldeko azken tontorra da. Itsasoari begira jarrita, eskuinerantz, Abrako superportua du magalean, eta Getxotik Billaoko lurmuturrerainoko kostaldea aurrean; eskerrerantz, berriz, Arenako hondartzaren senaia eta Cobarongo kostaldea, eta harantzago, Espainiako lurretan, Castro. Begiraleku paregabea, beraz. Horregatik aukeratu zuten horko tontorra azpiegitura militar bat eraikitzeko. Han daude oraindik dozena erdi kanoj, itsasora begira.

Arena eta Punta Lastrako kala. Arenakoa da Euskal Herriko mendebaldeko azken hondartza. Ez dago gehiegi begiratu beharrik garai batean hareatza izugarria izan zela ondorioztatzeko. 1a kilometro bat da luze, eta atzealdean duna alde nahiko zabala du oraindik, Petronorren azpiegiturak zati handia jan zion arren. Arenako hondartza jendez gainezka dagoenean aukera ona da Lastrako kala, itsasbeheran batez ere.

Pobeña eta Cobaron. Garai batean trenak iristen ziren Pobeñako kargalekuraino burdinaz beteta, han itsasontzietan sartu eta atzerrira garraiatzeko. Industria hura galdu zenez, trenbidea oinezkoentzat prestatu eta pasealeku ederra bihurtu da gaur egun. Hari segitua iritsiko gara Cobarongo kalara. Kargalekuko azken hondakinak eraman zituen 2008ko martxoko itsaso handiak.



2020 Donostia
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Zierbena
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Getxoko estropaden XLII. Ikurrina**

GETXO

2020KO UZTAILAREN 18A


Eremuko errekorra: 19:18.70 (3.k) **Castro** 2009an

Denborak:


Orio: 19:42.26 (3.tx/1.k)

Santurtzi: 19:44.62 (3.tx/2.k)

Bermeo-Urdaibai: 19:48.80 (3.tx/3.k)



Guztira: 17 estropada.
TKE ligan, 2005ean ez zen jokatu.



Data/Ikurrina	Irabazlea/Denbora/Kalea
2003/09/28. XXXIII. SN. XXIX. Bandera Corte Ingles	Orio: 19:41.51 (3.k)
2004/07/04. VI. Telefonica Bandera	Urdaibai: 21:18.30 (3.k)
2006/07/29. Getxoko estropaden XXVIII. Ikurrina	Pedreña: 19:52.63 (3.k)
2007/07/28. Getxoko estropaden XXIX. Ikurrina	Orio: 19:57.40 (3.k)
2008/08/02. Getxoko estropaden XXX. Ikurrina	Castro: 19:43.77 (1.k)
2009/08/02. Getxoko estropaden XXXI. Ikurrina	Castro: 19:18.70 (3.k)
2010/07/31. Getxoko estropaden XXXII. Ikurrina	Urdaibai: 19:23.42 (2.k)
2011/07/30. Getxoko estropaden XXXIII. Ikurrina	Kaiku: 19:48.04 (4.k)
2012/07/29. Getxoko estropaden XXXIV. Ikurrina	Kaiku: 19:32.12 (4.k)
2013/07/27. Getxoko estropaden XXXV. Ikurrina	Kaiku: 20:39.70 (2.k)
2014/07/26. Getxoko estropaden XXXVI. Ikurrina	Hondarribia: 19:39.82 (4.k)
2015/07/26. Getxoko estropaden XXXVII. Ikurrina	Hondarribia: 19:30.76 (4.k)
2016/07/17. Getxoko estropaden XXXVIII. Ikurrina	Hondarribia: 19:40.28 (3.k)
2017/07/29. Getxoko estropaden XXXIX. Ikurrina	Hondarribia: 19:46.29 (2.k)
2018/07/28. Getxoko estropaden XL. Ikurrina	Hondarribia: 19:46.84 (1.k)
2019/07/28. Getxoko estropaden XLI. Ikurrina	Donostiarra: 19:55.78 (4.k)
2020/07/18. Getxoko estropaden XLII. Ikurrina	Orio: 19:42.26 (1.k)

Oharrak:

*Harrobikoak: 9. **Jon Lizarralde** bere lehen bandera lortu zuen aurtengo debutean. **Unai Etxeberria** (Orio, Gipuzkoa, 1988), 2008tik *San Nikolas* ontzian urte gehien daramatzen harrobiko arraunlaria.

** J.A. Agirre Lehendakariaren XVI. Omenaldia

Castrok 2008an eta Hondarribiak 2018an egin zuten bezala, lehenengo kaletik irabazi zuen Oriok, eta hori ez da oso ohikoa izaten Getxoko estropada eremuan.

Ares azkena izan zen, hiru segundoko zigorra jaso baitzuen; Ondarroarekin palak jo zituen azken txanpan.

Gustuko ditut liga koloretsuak, emozioak gora, emozioak behera, gaur ederki, bihar kale. Ikusgarritasuna ekartzen dio kirolari, eta zenbat eta talde gehiago ibili lehian, orduan eta politagoa zaleentzat.

Niko Iurramendi

Donostiarra taldeko arraunlaria


Getxo. (Bizkaia)

Biztanleria: 80.277

(getxotarrak)

Monumentuak: Bizkaiko Zubi Esekia. 2006an, UNESCOk Munduko Ondare izendatu zuen.

Elizak: Mesedetako Ama Birjina, Andra Mari eta Santa Ana basiliza. **Eraikuntzak:** Portu Zaharra, Zugatzarte pasealekua, Galeako gotorlekua (XVIII. m. eraikina), Txurruka jauregia, Bake Eder etxea.



Barinatxeko hondartza. Euskal Herriko lehenengoetako hondartza nudista izan zen, baina gero eta gutxiago praktikatzen da. Hondartzaren ezkerreko aldean, Getxori dagokion zatian jartzen dira nudistak, Sopelako Udalak betidanik debekatu duelako. Urtero lasterketa nudista bat egiten da bertan. Surferako ere hondartza bikaina da, olatu handi eta luzeak baititu.

Gorrondatxako hondartza. Hondartza ikusgarria da Gorrondatxakoa –Aizkorri ere esaten zaio–, itsaslabar ederrak baititu inguruan. Hondar ale ilun eta lodiez gain, legarrez eta harkaitzez dago osatuta, eta atzealdean berdez jantzten duen zelai bat du. Uraren kalitatea ona da bainatzeko, baina sarrera ez da oso erraza izaten, harkaitza baitago. Egokia da urpekaritzarako eta arrantzarako.

Galea eta itsaslabarrak. Sopelatik Getxoraino doan pasealeku zabal eta eroso baliatuko dugu Gorrondatxako hondartzatik Getxoko Aixerrotaraino dauden bost kilometroak egiteko. Tarte horretan, paisaia ikusgarria eskaintzen dute Galeak eta inguruko itsaslabarrek. Zumaia Debara dagoen kostalde zatiaren antza hartuko dio bisitariak, eta ez arrazoirik gabe, biak aro geologiko berekoak direlako eta bietan nabaria delako flysch fenomeno. Horrela, paisaiatz liluraturik, ia oharkabean iritsiko gara Galeako puntaraino. Abrako itsasadarra ikusten da handik. Itsasargiaren eta gotorlekuaren ondotik pasatuko gara, jada maldan behera Aixerrotaraino iristeko. Getxoko Arrigunaga hondartza gertu dugu, bainua hartu nahi izanez gero.

Arrigunagako hondartza. Jatorrian harrizko hondartza txiki baino ez zen Arrigunagakoa, izenak gogorarazten duen bezala. Hondartzaren ezkerrean dike bat eraiki zuten harkaitzezko branka baten parean, eta itsaslabarren azpian beste hiru. Gero, hondarrez bete zuten espazioa, eta horra hor gaur egungo hondartza. Bainua hartzeko orduan kontu handia izan behar da ur-lasterrekin, itsaso zabalerantz bultzatzen baitute.

Ereagako hondartza. Uraren kalitatea ez da oso ona bainatzeko, Bilboko itsasadarretik oso gertu dagoelako. Ur-lasterrek ere nahiko indartsuak dira, eta itsasorantz bultzatzen dute. Eskuineko aldea da bainatzeko egokiena. Getxoko hirigunean dago, eta dirudunen etxebizitzak ditu atzealdean.

Portu Zaharra. Herriko Portu Zaharra, haren kale estu eta arrantzaleen etxe tradizionalekin, udalerrian arrantzak izan zuen garrantzi handiaren seinale.

Bizkaia Zubia. Getxoko beste edertasunetako bat Bizkaiko Zubi Esekia da, Getxo eta Portugalete batzen dituen eta ikuspegi zoragarria eskaintzen digun UNESCOk Gizadiaren Ondare izendatua.



2020 Getxo
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Getxo
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Orioko XXX. Estropadak. VIII. Orio Kanpina Bandera

ORIO

2020KO UZTAILAREN 19A

Eremuko errekorra: 19:42.94 (3.k) **Hondarribia** 2019an


Denborak:

Bermeo-Urdaibai: 20:10.41 (3.tx/2.k)

Hondarribia: 20:12.76 (2.tx/2.k)

Orio: 20:18.86 (3.tx/4.k)

Entr.: J.Elortegi




Data/Bandera	Irabazlea/Denbora
2003/08/30. Orioko XIII.Traineru estropadak. IEZ**	Astillero: 21:27.82
2004/07/03. Orioko Txanpa estropada (ez puntuagarria). IB*	Astillero: 01:28.80
2004/08/29. Orioko XIV.Traineru estropadak. VII.Inmobiliaria Orio Bandera. IEZ**	Urdaibai: 19:40.35
2005/08/27. Orioko XV.Traineru estropadak. VIII. Inmobiliaria Orio. Bandera. IEZ**	Castro: 19:30.04
2006/08/26. Orioko XVI.Traineru estropadak. IX. Inmobiliaria Orio Bandera. IEZ**	Hondarribia: 22:12.19
2007/08/26. Orioko XVII.Traineru estropadak. X.Inmobiliaria Orio Bandera. IEZ**	Urdaibai: 19:39.19
2008/08/30. Orioko XVIII.Traineru estropadak. XI. Inmobiliaria Orio Bandera. IB*	Castro: 19:25.54
2009/08/30. Orioko XIX.Traineru estropadak. XII. Inmobiliaria Orio Bandera. IEZ**	Castro: 19:54.87
2010/08/28. Orioko XX.Traineru estropadak. XIII. Inmobiliaria Orio Bandera. IB*	Urdaibai: 20:20.88
2011/08/27. Orioko XXI.Traineru estropadak. XIV. Inmobiliaria Orio Bandera. IEZ**	Tiran: 20:29.86
2013/07/21. Orioko XXIII.Traineru estropadak. I. Orio Kanpina Bandera. IEZ**	Hondarribia: 19:39.54
2014/07/20. Orioko XXIV.Traineru estropadak. II. Orio Kanpina Bandera. IB*	Urdaibai: 19:37.94
2015/07/18. Orioko XXV.Traineru estropadak. III. Orio Kanpina Bandera. IB*	Hondarribia: 19:15.88
2016/07/09. Orioko XXVI.Traineru estropadak. IV. Orio Kanpina Bandera. IB*	Hondarribia: 19:30.26
2017/07/08. Orioko XXIV.Traineru estropadak. V.Orio Kanpina Bandera. IB*	Hondarribia: 19:31.76
2018/07/22. Orioko XXIV.Traineru estropadak. VI.Orio Kanpina Bandera. IEB***	Orio: 19:46.56 (4.k)
2019/07/20. Orioko XXIX.Traineru estropadak.VII. Orio Kanpina Bandera. IEB***	Hondarribia: 19:42.94 (3.k)
2020/07/19. Orioko XXX. Estropadak. VIII.Orio Kanpina Bandera. IEB***	Urdaibai: 20:10.41 (2.k)

Oharrak: *IB (Ibaian. Erlojuaren aurka). **Guztira: 7**

IEZ (Itsasoan. Eremu zaharra). **Guztira: 8. ***IEB (Itsasoan. Eremu berria). **Guztira: 3**

Guztira 18 estropada. 2012an ez zen jokatu




Oharrak:

*Harrobikoak: 3.

Igor Frances arraunlariak TKEn bere lehen bandera lortu zuen.

Josu Barturenek TKEn bere lehen bandera 49 urterekin irabazi zuen.

Orioko estropadaren eremua



ITSASGORA 16:37 - METROAK: 1,5 | ITSASBEHERA: 10:17 - METROAK: -1,4 | KOEFIZIENTEA: 77

1. TXANDA	
KALEA	ONTZIA
4	KAIKU
3	ONDARROA
2	ARES
1	LEKITTARRA

2. TXANDA	
KALEA	ONTZIA
4	CABO
3	DONOSTIARRA
2	HONDARRIBIA
1	ZARAUTZ

3. TXANDA	
KALEA	ONTZIA
4	ORIO
3	SANTURTZI
2	URDAIBAI
1	ZIERBENA

Orioko estropadaren garapen estrategikoa. 2.txanda

ORIO	01:13.20
2. TXANDA	1. LUZEA
1 DON	1019 m
2 HON	+3
3 ZAR	+3
4 CAB	+3



ORIO	02:46.12
2. TXANDA	1. LUZEA
1 HON	550 m
2 DON	+0
3 CAB	+4
4 ZAR	+4



ORIO	04:21.16
2. TXANDA	1. LUZEA
1 HON	69 m
2 DON	+2
3 CAB	+7
4 ZAR	+8



ORIO	04:50.28
2. TXANDA	1. ZIAB
1 HON	4:37
2 DON	+1
3 CAB	+5
4 ZAR	+8



Hondarribiak estropada eremua ederki ezagutzen duela erakutsi zuen berriro ere. Asteazkenean Gipuzkoako txapeldun izan zen Orioko uretan eta gaur Ligan garaipena lortzeko gertu egon da, oso gertu. Txanda honek espero zena erakutsi zuen. Hau da, Hondarribiaren eta Donostiarraren arteko lehia. Hasieran bizia izan zen, denbora beretan aritu baitziren bi ontziak, baina, estropada aurrera joan zen heinean, “Ama Guadalupekoa”-k berriro erakutsi zuen ohorezko txandan lehiatzeko arraunlariak dituela.

ORIO	06:46.44
2. TXANDA	2. LUZEA
1 HON	841 m
2 DON	+2
3 CAB	+8
4 ZAR	+12



ORIO	10:16.91
2. TXANDA	2. ZIAB
1 HON	9:51
2 DON	+5
3 CAB	+14
4 ZAR	+24



ORIO	12:23.56
2. TXANDA	3. LUZEA
1 HON	711 m
2 DON	+6
3 CAB	+15
4 ZAR	+26



ORIO	15:26.51
2. TXANDA	3. ZIAB
1 HON	14:54
2 DON	+6
3 CAB	+15
4 ZAR	+29



ORIO	17:00.59
2. TXANDA	4. LUZEA
1 HON	872 m
2 DON	+9
3 CAB	+18
4 ZAR	+32



ORIO	19:33.23
2. TXANDA	4. LUZEA
1 HON	201 m
2 DON	+11
3 CAB	+17
4 ZAR	+34



Hondarribiko erregistroak –berriro ere 20 minututik gora– banderaren sinonimoa zirudien, eta are gehiago Urdaibaik eta Oriok 8 segundo geroago eman zutenean bigarren ziaboga. Ontzi berria estreinatzen zuen Bou Bizkaiaren azken luzeak, ordea, udako lehen garaipena emango zien bermeotarrei.

Orioko estropadaren garapen estrategikoa. 3.txanda

3. TXANDA		
4	ORI	
3	SAN	
2	URD	
1	ZIE	



ORIO		
04:49.82		
3. TXANDA 1. ZIAB		
1	ORI	4:42
2	URD	+1
3	SAN	+1
4	ZIE	+6



ORIO		
05:00.94		
1. ZIABOGA		
1	HON	4:37
2	DON	+1
3	OND	+2
4	CAB	+5
5	ORI	+5
6	URD	+6

7	SAN	+6
8	ARE	+7
9	ZAR	+8
10	KAI	+9
11	LEK	+10
12	ZIE	+11

ORIO		
08:39.85		
3. TXANDA 2. LUZEA		
1	ORI	355 m
2	URD	+1
3	SAN	+2
4	ZIE	+8



ORIO		
10:08.13		
3. TXANDA 2. ZIAB		
1	URD	9:59
2	ORI	db
3	SAN	+2
4	ZIE	+8



ORIO		
10:18.01		
2. ZIABOGA		
1	HON	9:51
2	DON	+5
3	URD	+8
4	ORI	+8
5	SAN	+10
6	ARE	+12

7	CAB	+14
8	LEK	+15
9	ZIE	+16
10	OND	+17
11	ZAR	+24
12	KAI	+25

Ohorezko txandako lau traineruek urruti zituzten Hondarribiak markatutako denborak. Bermeokoek lehia estua izan zuten estropadaren lehen zatian Oriorekin, baina hirugarrenen ziaboga egin ondoren, atzean utzi zuten San Nikolas ontzia.

ORIO	10:47.85
3. TXANDA	3. LUZEA
1 URD	1206 m
2 ORI	+0
3 SAN	+2
4 ZIE	+9



ORIO	15:15.73
3. TXANDA	3. ZIAB
1 URD	15:00
2 ORI	+2
3 SAN	+4
4 ZIE	+13



ORIO	15:20.45
3. ZIABOGA	
1 HON	14:54
2 URD	+6
3 DON	+6
4 ORI	+8
5 SAN	+10
6 CAB	+15

7 ARE	+17
8 ZIE	+19
9 LEK	+21
10 OND	+25
11 ZAR	+29
12 KAI	+29

ORIO	16:48.77
TXANDEN ARTEKOA	
1 HON	2. txanda
2 URD	+5 3. txanda
3 ORI	+10 3. txanda
5 SAN	+11 3. txanda



ORIO	18:23.45
TXANDEN ARTEKOA	
1 HON	2. txanda
2 URD	+0 3. txanda
3 ORI	+6 3. txanda
4 SAN	+10 3. txanda



Hondarriak egindako denbora jaitsi nahian aritu zen Urdaibai, eta azken luze ikusgarrian lortu zuen. Atzetik bizpahiru segundora zihoan Santurtzik bere lidergoa eta kalea babestu zituen, eta Oriori eragotzi zion Urdaibairen ibilbidea jarraitzea.

8. ORIO KANPINA BANDERA			
Saillkapen nagusia			
1	URDAIBAI	20:10.41	
2	HONDARRIBIA	20:12.76	+2.35
3	ORIO	20:18.86	+8.45
4	SANTURTZI	20:24.77	+14.36
5	DONOSTIARRA	20:26.26	+15.85
6	CABO	20:26.80	+16.39
7	ZIERBENA	20:28.90	+18.49
8	ARES	20:30.31	+19.90
9	LEKITTARRA	20:35.40	+24.99
10	ONDARROA	20:43.08	+32.67
11	KAIKU	20:45.54	+35.13
12	ZARAUTZ	20:48.39	+37.98



2020 Orio
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT




2020 Orio
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Orio. (Gipuzkoa)

Biztanleria: 5.147 (oriotarrak)

Monumentuak: San Nikolas eliza nagusiko aterpea, (XVI. m.), Kolon Txiki etxea,

Tourseko San Martin ermita.



Orio Arraunketa Elkarte. Sorrera urtea: 1965. Traineruen izenak: San Nikolas

Kontxako Banderak: 32G. Lehenengoa: 1901ean. Azkena: 2017an. 2E. 2019-2020. **Ligak:** 1G/2E. **Ligan** irabazitako estropadak: 50G/23E

Gipuzkoako Tx.: 12G. Lehenengoa: 1973an. Azkena: 2019an. 2E. 2019-2020. **Euskadiko Tx.:** 6G. Lehenengoa: 1995ean. Azkena: 2002an. 1E. 2019

Orio ibaiaren itsasadarra. Igeldotik Oriora joateko Gipuzkoako Birako lehen etapa aukeratuz gero, Antillako hondartzara iritsiko da ibiltaria, Mendizorrotzeko azken zatian Aranarriko talaiaetik pasa eta gero. Garai batean, baleak bistatzeko leku aproposa zen; gaur egun, kostaldearen ikuspegiaz goatzeko begiralekua atsegina. Antillako hondartzak, 1997an egindako lanen ondoren, pasealeku eta lorategi ederrak ditu inguruan.

Igeldotik Oriora doan errepidetik joanez gero, **Lusarbeko atsedenekua** dago bide erdian. Egun pasarako leku atsegina da, jatorduak egiteko mahai eta guzti.

Oribarzar. Oria ibaiaren ezker aldeko erriberan dago, ekialdera begira. Bainatzea ez da gomendatzen, uraren kalitate eskasagatik. Hondartzaren atzealdean, Txurrukako aterpetxea dago. Bideari itsasorantz jarraituz gero, Orioko barrara iritsiko gara.

Talaimendi eta Mollarri. Talaimendi bat baino gehiago topatuko dugu euskal kostaldean, Orio eta Zarautz artean horietako bat. Oriotik Zarautz aldera joanez, Txurruka aterpetxearen eskuinaldetik gora doan errepidea da Talaimendira igotzeko biderik errazena. Mahastiek esango digute Gipuzkoako txakolinaren eremuan sartu garela. Talaimendiko zelaiaetik ikuspegia ederra da Zarautz aldera: Iñurritza erreka, dunak, hondartza luzea, Santa Barbara aurrez aurre eta eskuinaldean San Anton mendia, Getariako sagua. Eskuinean, Mollarria ikusiko dugu, XX. mende hasieran Andatzarratetik zetorren minerala kargatzeko erabilitako ingurunea. Mollarriko haitzaren alboan kala bat aurkituko du lasaitasuna nahi duenak.

Bilboko XI. Bandera

BILBO

2020KO UZTAILAREN 25A

Eremuko errekorra: 19:20.68 **Hondarribia** 2014an

Denborak

Urdaibai: 19:27.14 (3.txanda)



Santurtzi: 19:31.98 (3.txanda)

Orio: 19:33.44 (3.txanda)

Data/Bandera	Irabazlea/Denbora
2007/09/22. Bilbo Hiriko I. Bandera	Orio: 20:14.58
2008/08/24. Bilbo Hiriko II. Bandera	Castro: 19:34.52
2009/07/04. XI.Telefonica Bandera. Bilbo Hiriko S.N	Castro: 20:14.02
2010/07/03. I.Seat Bandera. Bilbo Hiriko S.N	Orio: 19:28.60
2011/07/03. Bilboko III. Bandera	Kaiku: 19:49.48
2012/06/09. Bilboko IV. Bandera**	Hondarribia: 20:33.50
2014/08/31. Bilboko V. Bandera	Hondarribia: 19:20.68
2015/08/29. Bilboko VI. Bandera	Hondarribia: 19:23.92
2016/07/16. Bilboko VII. Bandera	Hondarribia: 19:29.32
2017/07/01. Bilboko VIII. Bandera	Urdaibai: 19:25.70
2018/06/24. Bilboko IX. Bandera	Urdaibai: 19:34.54
2019/06/22. Bilboko X. Bandera	Orio: 19:31.22
2020/07/25. Bilboko XI. Bandera	Urdaibai: 19:27.14

Oharrak: *Harrobikoak: 3.

** 2012an, ligaren denboraldiko aurkezpen egunean jokatu zuten, estatistika ofizialetan estropada hau ez da sartzen.



Guztira 13 estropada. 2003tik 2006ra eta 2013an ez ziren jokatu. Estropada guztiak erlojuaren aurka jokatu dira.

Gaur egun, ez dago sekulako aldea arraunketa motetan, ezta?
 Duela urte batzuk, bai, Astilleroren garai onen hasieran, adibidez.
 Baina, orain, bi daudela esango nuke: Hondarribiarena da, atzean
 asko geratuz egiten dena, eta bestea betikoa da, gu ezartzen ari
 garena taldean.


Jon Elortegi

Urdaibaiko entrenatzailea

Bilbo. (Bizkaia)

Biztanleria: 346.478
(bilbotarrak)

Ondareak. Elizak: San Anton, Abandoko San Bizente, San Nikolas Barikoarena, San Frantzisko Asiskoarena, Santiago katedrala eta Begoñako santutegia. **Museoak:** Arte Ederretako eta Arte Modernoarena, Guggenheim, Azkuna Zentroa. **Eraikuntzak:** Alde Zaharra, Plaza Berria, Arriaga antzokia, Erakustazoka, Sota etxea, Montero etxea, Burtsa-etxea, Zeberitxa, Euskalduna eta Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregiak.



XXXV. El Correo Bandera. Kutxabank S.N

LEKEITIO

2020KO UZTAILAREN 26A

Eremuko errekorra: 19:15.03 **Hondarribia** (1.k) 2016an. Euskadiko Txapelketan lortua

Eremuko errekorra (ligan): 19:39.64 **Santurtzi** 2019an

Denborak:

Hondarribia**: 20:06.14 (2.tx/2.k)


Bermeo-Urdaibai: 20:10.48 (3.tx/1.k)

Donostiarra: 20:15.92 (3.tx/3.k)

Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2019/06/30. XXXIV. El Correo Bandera. BBK S.N	Santurtzi: 19:39.64 (2.k)
2020/07/26. XXXV. El Correo Bandera. Kutxabank S.N	Hondarribia: 20:06.14 (2.k)

Entr.: M. Orbañanos

Ama Guadalupekoa



SAILKAPENA					
1. Urdaibai	77	5. Hondarribia	66	9. Ares	32
2. Santurtzi	76	6. Zierbena	59	10. Ondarroa	32
3. Donostiarra	74	7. Cabo	49	11. Zarautz	28
4. Orio	73	8. Lekittarra	37	12. Kaiku	21

Ez da batere ohikoa hamabi puntuko aldeari buelta ematea asteburu batean. Bilboko eta Lekeitioko estropadak jokatu baino lehen, laugarren postuan zen Urdaibai, Santurtzitik 11 puntura. Urdaibaik 23 eskuratu, eta sailkapenaren buruan jartzea lortu zuen. Sailkapeneko lehen lau ontzien artean lau punturen aldea zegoen. Urdaibai: 77. Santurtzi: 76. Donostiarra: 74. Eta Orio: 73

Oharrak: *Harrobikoak: 8.

** **Hondarribiak** hiru segundoko zigorra jaso zuen lehenengo luzean **Caboren** kalean sartzeagatik.

*Ababorrak eta istriborrek batera egin arraunean! Belaunak eta bizkarra ondo erabili. Bukatu ondo, ez izan presarik erasora joateko!**

Gari Uranga

Zarauzko entrenatzailea

Oharra:


***Zarautz** taldea 4.a sailkatu zen, ligako bere postu onena lortu zuen.

Lekeitio. (Bizkaia)

Biztanleria: 7.438 (lekeitiarrak)

Monumentuak: Andra Maria eliza eta Uriarte jauregia.

Ondareak: Oxangoiti, Uribarri eta Abaroa jauregiak, Santa Katalina itsasargia.



Isuntza Arraun Elkarte. Sorrera urtea: 1977. Traineruaren izena: Lekittarra

Kontxako Banderak: 0

Bizkaiko Txapelketak: 1. 2000an.

Ligak: 0. **Ligan** irabazitako estropadak: 0

Euskadiko Txapelketak: 0

Berriatuko eta Mendexako kalak. Itxas-Gain pasata eta errepidean aurrera jarraituta, Endaiko senaia da bainua hartzeko gomendagarriena. Eskuinaldean, Anpenarriko muturra du, begiratoki ona. Egiluz dator ondoren, segidan, eta handik laster batean iritsiko gara Artzabal lurmuturrera, Lekeitioren atari. Artzabal lurmuturraren parera iritsitakoan, errepidea Lekeitio aldera jaisten hasi baino lehen, eskuinean dagoen bidetik, Labaganako begiralekura jaits daiteke, aurrera, muturrerantz eginez, zelai eder bateraino. Handik ederki ikusten dira Garraitz uhartea, Karraspio hondartza, Lekeitio, Otoio mendia...

Karraspio hondartza. Euskal Herriko hondartza ederrenetakoa da. Itsasbeheran, oinez joan daiteke Garraitz uharteraino. Ezkerraldean, Karraspio Txiki hondartza du, Lea ibaiaren ahoan. Gainera, pasealeku eroso batek Lea ibaiatz bestalderaino eramango gaitu, zubi bat gaindituta.

Garraitz uhartea. Lekeitioko kostaldeari nortasuna ematen dio Garraitz uharteak –San Nikolas ere deitzen diote– Hain gertu ikusita, behatzeko gogoia ematen du. Itsasbeherak eskaintzen du horretarako aukera, bai Karraspio hondartzatik zuzenean joanda, bai Isuntzako hondartzatik abiatzen den pasabidetik joanda –nahiko labainkorra denez, tentuz ibili behar–. Uharteak baditu gordeak zenbait altxor bisitariarentzat: Bariko San Nikolasi eskainitako baselizaren eta frantsizkotarren komentu baten hondakinak, esaterako.

Isuntza hondartza. Karraspiokoak bezala, honek ere ikusmira ederra eskaintzen du, Garraitz aurrean izanik. Lekeitioko portuaren ondoan dago, eta udan jendez gainezka egoten da.

Santa Katalinako itsasargia. Lekeitioko portutik ibilbide erraz eta atsegina egin daiteke Santa Katalinako itsasargiraino eta baselizaraino, izen berbera duen pasealekutik. Baseliza XIV. mendeko da, eta gotorleku ere izan zen, kanoi eta guzti. Baselizaren azpian, itsaslabarrean, Santa Katalinako kobazuloa dago. Leize horretan historiaurreko gizakiek bildutako muskuiluen hondakinak aurkitu dituzte.



2020 Bilbo
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Lekeitio
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Hondarribiko XXXIII. Bandera. Mapfre S.N

HONDARRIBIA

2020KO ABUZTUAREN 8A

Eremuko errekorra: 19:16.84 **Kaiku** 2009an. Euskadiko Txapelketan lortua


Eremuko errekorra (ligan): 19:21.89 **Urdaibai** 2008an

Denborak:

Santurtzi**: 19:30.18 (3.tx/3.k)

Bermeo-Urdaibai: 19:43.28 (3.tx/1.k)


Hondarribia: 19:48.34 (2.tx/3.k)



Oharrak:*Harrobikoak: 4.

**Santurtzi lehendabizikoz izan zen azkarrena aurtengo Eusko Label ligan.

Entr.: I. Zabala



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2003/08/02. Hondarribiko XVI. Bandera. Euskaltel S.N	Mecos: 20:03.58 (2.k)
2004/07/24. Hondarribiko XVII. Bandera	Cabo: 19:44.21 (4.k)
2005/08/06. Hondarribiko XVIII. Bandera	Astillero: 19:55.86 (1.k)
2005/09/24. VII. Telefonica Bandera	Astillero: 19:47.60 (3.k)
2006/08/06. Hondarribiko XIX. Bandera	Hondarribia: 19:43.52 (1.k)
2007/08/04. Hondarribiko XX. Bandera	Urdaibai: 20:07.13 (4.k)
2008/08/23. Hondarribiko XXI. Bandera	Urdaibai: 19:21.89 (1.k)
2009/08/22. Hondarribiko XXII. Bandera. Mapfre S.N	Orio: 21:02.23 (1.k)
2010/08/22. Hondarribiko XXIII. Bandera. Mapfre S.N	Urdaibai: 19:31.98 (3.k)
2011/08/20. Hondarribiko XXIV. Bandera. Mapfre S.N	Kaiku: 19:28.34 (4.k)
2012/08/11. Hondarribiko XXV. Bandera. Mapfre S.N	Hondarribia: 19:30.16 (2.k)
2013/08/10. Hondarribiko XXVI. Bandera. Mapfre S.N	Kaiku: 19:50.18 (3.k)
2014/08/24. Hondarribiko XXVII. Bandera. Mapfre S.N	Urdaibai: 19:50.94 (1.k)
2015/08/22. Hondarribiko XXVIII. Bandera. Mapfre S.N	Hondarribia: 19:36.42 (3.k)
2016/08/20. Hondarribiko XXIX. Bandera. Mapfre S.N	Urdaibai: 19:44.12 (4.k)
2017/08/12. Hondarribiko XXX. Bandera. Mapfre S.N	Urdaibai: 19:48.70 (4.k)
2018/08/12. Hondarribiko XXXI. Bandera. Mapfre S.N	Cabo: 19:45.86 (3.k)
2019/08/11. Hondarribiko XXXII. Bandera. Mapfre S.N	Orio: 20:12.36 (1.k)
2020/08/08. Hondarribiko XXXIII. Bandera. Mapfre S.N	Santurtzi: 19:30.18 (3.k)

Harrabots handia sortu du arraun munduan jazo den azken gertakariak. Urdaibaiko zuzendaritzak jakinarazi duenez, asteartetik asteazkenerako gauean, elkartekoa ez den norbait sartu zen ontziak eta materiala dauden pabiloira, ezkutuan. Dokumentazio guztia zeraman diru-zorro bat agertu zen pabiloiko hangarrean, traineru bermeotarraren ondoan. Gertakizun horrek ezinegona sortu zuen Urdaibaiko arraunlarien eta zuzendaritzako kideen artean. Abuztuaren 7an Urdaibaik udaltzainen esku utzi zuen diru-zorroa, eta afera «bukatutzat» eman zuen. Sare sozialetan zabaldutakoaren eta Urdaibaiko arraunlari batek egindako salaketaren arabera, diru-zorro hori Iker Zabala Santurtziko entrenatzailearena omen zen.*

Xabier Castrillon

Oharra:


*Informazio hau 2020ko abuztuaren 6an eta 19an Berria eta El DV egunkariak argitaratu zuten.

Hondarribia. (Gipuzkoa)

Biztanleria: 16.464 (hondarribiarrak)

Monumentuak: Harresiak, Joana Eroaren Etxea, Karlos V.aren eta San Telmo jauregiak

Guadalupeko Amaren eliza Jaizkibel mendian (XVI. m.). **Ondareak:** Andre Mariaren eliza.



Hondarribia Arraun Elkarte. Sorrera urtea: 1969. Traineruen izenak. Ama Guadalupekoa

Kontxako Banderak: 14. Lehenengoa: 1891ean. Azkena: 2020an.

Ligak: 3. Ligan irabazitako estropadak: 78

Gipuzkoako Txapelketak: 11. Lehenengoa: 1967an. Azkena: 2020an.

Euskadiko Txapelketak: 6G. Lehenengoa: 2004an. Azkena: 2019an

1Emakumeak. 2008an

Exanzabalago itsaslabarra. Gipuzkoako eta Bizkaiko kostaldean agertuko den flysch fenomenoaren adibide bikaina dira itsaslabar hauek. Surfzaleentzat: itsaslabar hauen parean, kostaldetik kilometro batzuetara, Belharrako olatu erraldoia ageri da sagailo handiko egunetan. Donibane Lohizuneko eta Ziburuko arrantzaleak ederki sufritu dute betidanik haren oldarraldia.

Abadia eremua. Anton Abadiak utzitako ondarea da. Bertan ipuinetako gaztelua eta eremuaren bisita gidatuak antolatzen dira.

Loiako badia. Harrizko hondartza hau erabat basatia dela esan daiteke. Nudismoa egiten da.

Txurruta uhartea. Loiako badiaren ertz batean dago irla txiki hau. Itsasbeheran bat egiten du kostaldearekin, eta oinez joan daiteke bertaraino. Inguruan ospatzen omen ziren akelarretatik datorkio izena (zurruta).

Dunbarriak. Hendaia argazki gehienetan ageri dira hondartzari amaiera jartzen dioten bi haitz bereziok. Jatorrian material bigunagoz inguraturik zeuden, eta itsasoaren higadurak bakartu zituen. Elezaharrak dio Aiako Harrian bizi zen erraldoi batek jaurti zituela itsasora.

Ondarraitz hondartza. Euskal Herriko hondartzarik luzeena dela esan ohi da, Angeluko hareatzak bost kilometro dituen arren –hamaika hondartzatan dago banaturik, ordea–.

Txingudiko badia. Bidasoa ibaiaren itsasoratzeak sortutako badia da Txingudikoa. Hendaia, Irun eta Hondarribiko herriek mendez mende eragindako presioa jasan behar izan duen arren, oraindik gordetzen ditu padura eremu garrantzitsuak: Plaiaundikoa eta Jaitzubikoa, esate baterako.

- **Txorien uhartea (Hendaia).** Hondarrezko irla bat da, garai batean inguruko piraten bilgune.

- **Plaiaundi (Irun).** Gizakiak sorturiko azpiegiturek inguratzen dute hagaztien paradisu txiki hau. 1998tik hona egindako ahaleginean, erabat suntsitutako ingurunea zen aspaldi ez dela, baina hegazti migratzaileentzako atsedeneku bilakatu dira parkearen 23,4 hektareak. Eta bisitariari hegazti horiek ezagutzeko aukera bikaina ematen dio, bi kilometroko ibilbidean jarrita dauden begiralekuei esker.

- **Jaitzubia (Hondarribia).** Plaiaundiko hezegunetik gertu, Jaitzubiko ibarrean ere gizakiak lehengoratu egin du garai batean suntsitu zuena. Kasu honetan, itsasoari hormak jarri zitzaizkion nekazaritzako lurak lortzeko. Harresi horren zati bat botata lortu da hezegunea lehengoratzea. Orain, hegaztiak 70,4 hektareako eremu babestua dute bertan. Jaitzubiko ibarrak badu beste berezitasun bat: Jaizkibel mendia eta Bidasoako padurak batzen ditu, errekek osatzen duen pasabide berdeari esker.

Hondarribiko hondartza. Txingudiko badiaren ahoak bi ezpain ditu: bata, Ondarraitz, Bidasoa ibaiak ekialdera; bestea Hondarribiko hondartza, mendebaldera. Higer lurmuturraren babesa du Hondarribikoak, eta, horregatik, urak bare izaten ditu normalean.

Higer eta Amuitz. Higer da Jaizkibel mendia erraldoiaren (itsasora amiltzen den 15 kilometroko kosta lerroa) lehen lurmuturra ekialdetik. Hango itsasargia 1881etik ari da lanean etengabe, –aurretik zegoen itsasargia Irungo setioan suntsitu zuten, 1874an–.

Artzuko portua eta Marlako kalak. Guadalupetik Artzuko portura edo Justiztik Marlako kaletara jaisteko ordu erdiko bidea dago. Kostalde zati eder bat ezagutzeko aukera ematen du. Artzuko portuan, errota bat eta harrobi bat zeuden antzina. Marla, berriz, bertan hondoratutako itsasontziengatik da ezaguna, Maro izeneko azkena.

Ondarroako XXXVI. Bandera. Cikautxo S.N

ONDARROA

2020KO ABUZTUAREN 9A


Eremuko errekorra: 19:44.96 (4.k) **Zierbena** 2018an

Denborak:

Zierbena: 20:12.65 (2.tx/1.k)

Orio: 20:13.90 (3.tx/1.k)

Donostiarra: 20:17.05 (2.tx/3.k)



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2017/08/13. Ondarroako XXXIII. Bandera. Cikautxo S.N	Urdaibai: 19:55.12 (2.k)
2018/08/11. Ondarroako XXXIV. Bandera. Cikautxo S.N	Zierbena: 19:44.96 (4.k)
2019/08/10. Ondarroako XXXV. Bandera. Cikautxo S.N	Hondarribia: 19:52.92 (1.k)
2020/08/09. Ondarroako XXXVI. Bandera. Cikautxo S.N	Zierbena: 20:12.65 (1.k)

TKEko araudiak, teoriar, harrobiko taldeak babesteko dira, baina, urteak joan eta urteak etorri, talde horiek doaz behera. Zer ari da gertatzen?

Hipokresia handi bat dago. San Juan, San Pedro, Zumaia... klub historikoak behera joan dira, eta Orio bera ere joan zen. Araudi horiek jarrita daude Urdaibai, Kaiku, Astillero eta halakoei min emateko. Baina gutxi-asko, horrelako talde gehienek liga nagusian segitzen dute. Ez, ordea, ustez arauak babestuta dauden harrobiko taldeek. Beti esan izan dut hau: taldeak gaztetu behar dira, baina ez oraingo arauekin. Behartu beharrean harrobiko hiru arraunlari sartzera, behartu 23 urtez azpiko zazpi arraunlari izatera taldean, edonongoak izanda ere. Horrela aterako lirarteke arraunlariak.

Iker Zabala

Santurtziko entrenatzailea

Oharra:*Harrobikoak: 3.

Liga nagusian, **Iñigo Ibañezek** eta **Iñaki Urkijok** lehen bandera irabazi zuten.

Ondarroako estropada* talde bakoitzean harrobiko arraunlariek izandako partaidetza

TALDEA	ARRAUNLARIAK LIGAN	HARROBIKOAK LIGAN	HARROBIKOAK ONDARROAN	ESKIFAIAREN PORTZENTAJEA ONDARROAN
ZARAUTZ	20	15	11	% 78,57
ONDARROA	22	13	9	% 64,28
LEKITARRA	21	11	9	% 64,28
CABO	22	16	8	% 57,14
HONDARRIBIA	21	11	8	% 57,14
ARES	20	8	8	% 57,14
ORIO	22	11	6	% 42,85
KAIKU	22	8	5	% 35,71
DONOSTIARRA	21	8	4	% 28,57
SANTURTZI	21	8	4	% 28,57
URDAIBAI	22	7	3	% 21,42
ZIERBENA	20	6	3	% 21,42

*Guk gure arraunlariei sari ekonomikoak ematen dizkiegu, baina hutsaren hurrengo dira, ez dute horregatik arrauna egiten, afizioagatik baizik, norbere taldearekin aritzeagatik eta ahal bada bandera lortzeagatik. Gure filosofia duten taldeak, diru gehiago izanda ere, ez dira joko ekonomikoetan sartzen, jendeak mentalitatea aldatzen duelako: jendea hasten da arrauna egiten baldin eta dirua baldin badago eta dirurik ez badago ez du arrauna egiten, eta hori oso arriskutsua da. Ezin duzu imajinatu nola aldatzen den jendearen jarrera, diruagatik edo afizioagatik arrauna egiten duenean**.*

Joseba Fernandez***

Pedreña taldeko entrenatzailea

Oharrak:


*Ondoko arrazoiarengatik aukeratu dut estropada hau: 2017an *Antiguako Ama* traineruko eskifaia etxeko arraunlariz osatuta zegoen. Eredu bat izan zen harrobiko arraunlariengan sinisten duten talde guztientzat.

Orain dela zortzi urte esandakoa, Pasai Donibaneko entrenatzaile zela. *Koxtape, Mecos, Pedreña, Castro, Astillero, Pasai Donibane eta Urdaibai taldeetan aritu da.

Ondarroa. (Bizkaia)

Biztanleria: 8.856 (ondarroarrak)

Ondareak: Andre Maria eliza gotikoa, Antiguako Andre Mariaren eliza, Likona dorrea, Arrantzaleen Kofradia zaharra eta Zubi Zaharra.



Ondarroa Arraun Elkartea. Sorrera urtea: 1973. Traineruaren izena: Antiguako Ama

Kontxako Banderak: 2. Lehenengoa: 1898an. Azkena: 1926an.

Ligak: 0. Ligan irabazitako estropadak: 0

Bizkaiko Txapelketak: 3Gizonak. Lehenengoa: 1994an. Azkena: 1997an. 1Emakumeak. 2020an

Euskadiko Txapelketak: 0

Arbeko badia eta Talaixa. Debatik Mutrikurako errepidean, Alkoleako punta baino lehen, Arbeko badia dago. Garai batean arrantzaleak biltzen ziren bertan, baina gaur egun surflarientzat dago bereziki prestatua. Izan ere, Euskosurf gunea izendatu dute. Eskarmentu handiko surflarientzako gunea da, hondartza harrizkoa delako eta olatuak urruti samar lehertzen direlako. Arbe badiatik Talaixara igotzeko errepidea dago. Izenak dioenez, kostaldea ikusteko leku paregabea da.

Mutrikuko hondartza. Nagusia izan da beti, herrigunetik gertu dagoen bakarra delako. Bainatzeko ez da oso eroso, ur ertzean harkaitzak baitira nagusi. Ondoan, kaiaren aldetik, itsasoko ura duen igerileku eder bat du.

Zazpi Hondartzak eta Saturrarán. Mutrikuko hondartzatik Saturraránera, 2,5 kilometroko kosta zatian, Zazpi Hondartzak izeneko kalak daude. Harkaitzezko kala txikiak dira gehienak. Leku atseginak dira. Saturrarango hondartzaren puntako haitz beltzek, hondartzari nortasun berezia emateaz gain, itsasoaren oldarraldietatik babesten dute. Gipuzkoako hondartzarik ederrenetakoa da, ezbairik gabe. Mutrikuko lurretan egonik ere, Ondarroari begira dago, 2001etik Harbide pasealekuak lotzen baitu Arrigorriko hondartzarekin.

Arrigorri hondartza. Ondarroako portuaren ondoan dago, barraren babesean. Horri esker, urak bare egon ohi dira, eta hondartza atsegina da igeri egiteko.

Berriatuko eta Mendexako kalak. Ondarroatik Lekeitiora doan kostaldeko errepidea astialdirako baliabide bihurtu dute inguruko bizilagunek, barrualdetik errepide berria egin zutenetik zirkulazioa asko jaitsi baita. Ibiltari zein bizikletazaleek 12 kilometro inguruko errepide tarte irabazi dute lasai gozatzeko. Ondarroa eskuinean utzi eta aguro Irukatiluko kalatxoak ditugu, Altariako lurmuturraren kanpoaldetik. Errepidearen bestaldean, berriz, Santa Klarako baseliza muino batean. Kostaldearen ikuspegi ederrak daude handik. Errepidetik Lekeitiorantz abiatuta, menditik itsasertzera jaisten diren hamaika errekatxo eta ibarbiderekin egingo dugu topo, bata bestearen segidan –horregatik da hain errepide bihurria–. Erreka horiei esker, beste horrenbeste harrizko kala eta senaia eta begiralekuak ere bai. Fraile haitza, esate baterako, Ondarroatik abiatu eta kilometro eskasera dago, Berriatuko lurren mugan, hain zuzen ere. Irabaltza, Portutxiki eta beste pasatuko ditugu, Itxas-Gainera iristeko. Mendexako lurretan gaude jada.



2020 Hondarribia
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Ondarroa
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Zarauzko XLIII. Ikurrina

ZARAUTZ

Brankaz eta poparean egoki ibiltzeko aproposa da Zarauzko eremu fidagarria, traineruei zuzen sartzen baitzaie olatua.

Olatuak popareko lanarekin bakarrik lotu ohi dira, baina kanporanzko bi luzeetan ere lagungarriak izan daitezke. Amunarriz berari entzun izan zaio, itsasoko estropadetan eta brankaz, «olatu, olatua, bagoaz honekin» esaten arraunlariei. Kontran datorkien olatuari zer etekin klase ateratzen zaion azaldu du: «Zarautzen, olatuak errebotea egiten du errepideko horman, eta horrek bultzada ematen dio traineruari kanpora joateko».*

Popareko lanerako, eremuak badu berezitasun bat: barruko kaleetatik hobeto eta azkarrago bukatu ohi dute traineruek, barrurantz markatzen duelako olatuak. Amunarrizek garbi asko azaldu du zer kale dituen gustuko horregatik: «Nik beti nahiago aurreneko bi kaleak. Hirugarrena ere ez da txarra». Ez du laugarren kalea aipatu, zerbaitegatik: «Eremu berrian ari garenetik, laugarren kaletik baino azkarrago ibiltzen gara beste kaleetatik».

Ipar-mendebaleko haize petral samarra dago emanda gaurko, eta hori gogoratu du Hondarribiko patroiak: «Mugituta egongo da. Eremua irekia da, ez dago babesik inon, eta, haizeak jotzen badu, trapaia ateratzen da. Prest egon behar dugu. Olatuen berezko garbitasuna zikindu egingo du haizeak. Hala ere, haizeak berdin jotzen du denentzat, eta fidagarria da alde horretatik.

Aitor Manterola

Berria egunkariko kazetaria

Oharra: *Hondarribiko patroia



2020 Zarautz
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Zarauzko XLIII. Ikurrina

ZARAUTZ 1J

2020KO ABUZTUAREN 15A

Eremuko errekorra**: 19:23.72 (3.k) **Santurtzi** 2020ko bigarren jardunaldian


Denborak:

Hondarribia: 21:00.48 (2.tx/2.k)***

Cabo: 21:22.44 (2.tx/1.k)

Santurtzi: 21:27.16 (3.tx/1.k)

Lehen jardunaldia. Guztira 20 estopada



Oharrak:

*Harrobikoak: 8


**Eremu berria. 2012an Eusko Label Bandera eremu honetan jokatu zuten.

2015eko denboraletik aurrera baliza guztiak 150 metro itsaso zabalera lekualdatu zituzten, eta eremu orijinalaren lerroakadurari eutsi zioten.

*** Zarautzen, 2007ko bigarren jardunalditik ez zen 21 minututik gorako denborarekin irabazten.

Entr.: M. Orbañanos

Ama Guadalupekoa



Data/Ikurrina. Lehen jardunaldia	Eremua	Irabazlea/Denbora
2003/08/16. Zarauzko XXVI. Ikurrina	Zaharra	Astillero: 19:44.36 (2.k)
2003/09/21. V. Telefonica Bandera	Zaharra	Astillero: 19:48.10 (1.k)
2004/08/01. Zarauzko XXVII. Ikurrina	Zaharra	Urdaibai: 19:52.11 (3.k)
2005/08/28. Zarauzko XXVIII. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:54.06 (3.k)
2006/08/19. Zarauzko XXIX. Ikurrina	Zaharra	Orio: 20:35.34 (1.k)
2007/08/18. Zarauzko XXX. Ikurrina	Zaharra	Orio: 20:17.95 (3.k)
2008/08/16. Zarauzko XXXI. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:37.03 (2.k)
2009/08/15. Zarauzko XXXII. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:36.17 (1.k)
2010/08/14. Zarauzko XXXIII. Ikurrina	Zaharra	Orio: 20:54.43 (2.k)
2011/08/13. Zarauzko XXXIV. Ikurrina	Zaharra	Kaiku: 19:23.78 (1.k)
2012/07/08. I. Eusko Label Bandera	Berria	Hondarribia: 20:05.83 (3.k)
2012/08/18. Zarauzko XXXV. Ikurrina.	Zaharra	Kaiku: 19:31.04 (4.k)
2013/08/17. Zarauzko XXXVI. Ikurrina	Zaharra	Kaiku: 19:28.30 (2.k)
2014/08/16. Zarauzko XXXVII. Ikurrina	Zaharra	Kaiku: 19:55.92 (4.k)
2015/08/15. Zarauzko XXXVIII. Ikurrina	Zaharra	Hondarribia: 19:42.08 (4.k)
2016/08/13. Zarauzko XXXIX. Ikurrina	Berria	Urdaibai: 19:27.50 (2.k)
2017/08/19. Zarauzko XL. Ikurrina	Berria	Orio: 20:21.52 (2.k)
2018/08/18. Zarauzko XLI. Ikurrina	Berria	Urdaibai: 19:58.52 (1.k)
2019/08/17. Zarauzko XLII. Ikurrina	Berria	Hondarribia: 19:42.32 (2.k)
2020/08/15. Zarauzko XLIII. Ikurrina	Berria	Hondarribia: 21:00.48 (2.k)

Oharra: 2003an, 2004an eta 2005ean jardunaldi batean jokatu zuten Zarauzko Ikurrina.

Hondarribiak 22 segundotik gora atera die aurkariei bigarren txandan jokatuta, Zarauzko Ikurrinaren lehen egunean. Haize indartsuak txikizioa eragin du, eta Urdaibaik lidergoa galdu du, azkena egin baitu (22:16.00). Santurtzik ligako lehen postua berreskuratu du.

Emana zegoen haizeak gora egingo zuela arratsaldeak aurrera egin ahala, eta bai bete ere iragarpenak. Kalterik gehien azkeneko txandakoei eragin zien.

Hondarribia Eusko Label liga irabazteko lehian sartu da. Santurtzirengandik sei puntura jarri da, Oriok bost ateratzen dizkio, eta Urdaibaik bi.

SAILKAPENA					
1. Santurtzi	102	5. Donostiarra	95	9. Ondarroa	45
2. Orio	101	6. Zierbena	87	10. Ares	41
3. Urdaibai	98	7. Cabo	73	11. Zarautz	40
4. Hondarribia	96	8. Lekittarra	48	12. Kaiku	32

Atzokoaren beste irakurketa laugarren kalearena da. Kale horretan hondoratu baitzen Urdaibai. Kontakizun hau duela urte batzuetakoa da, orduko arraunlari bati entzundakoa, laugarren kaletik arraun egin eta gero: «Eman eta eman, baina ezin aurrera egin, itsaso azpiko zerbaitek helduta edukiko bagintu bezala».

Zarauzko ohiko joerari muzin eginez, kanpoko kaleetatik sartu ziren atzo helmugan traineruak.*

Aitor Manterola

Berria egunkariko kazetaria

Oharra:

*Berria egunkarian 2020ko abuztuaren 16an argitaratutako kronikaren pasarte batzuk.

Zarauzko XLIII. Ikurrina

ZARAUTZ 2J

2020KO ABUZTUAREN 16A

Eremuko errekorra: 19:23.72 (3.k) **Santurtzi** 2020an


Denborak:

Santurtzi: 19:23.72 (3.tx/1.k)

Hondarribia: 19:30.38 (3.tx/4.k)

Zierbena: 19:34.04 (3.tx/2.k)

Bigarren jardunaldia
Guztira: 15 estropada
Garaipenak: 16**



Oharrak:


*Harrobikoak: 4

"Zarautzen irabazten duenak ez du aparte izaten Kontxako bandera". Azken bost urteetan bete egin da: 2016an, **Urdaibaik** lotu zion Zarauzko garaipenari Kontxakoa; hurrengo urtean, **Oriok**, eta 2018an, iaz eta aurtien **Hondarribiak**.

Sailkapen nagusia (bi egunetako denborak batuta):

Hondarribia: 40:30.86. **Santurtzi**: 40:50.88 eta **Zierbena**: 41:08.24.

Entr.: I. Zabala



Data/Ikurrina. Bigarren jardunaldia	Eremua	Irabazlea/Denbora
2006/08/20. Zarauzko XXIX. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:48.91 (3.k)
2007/08/19. Zarauzko XXX. Ikurrina	Zaharra	Urdaibai: 21:56.48 (3.k)
2008/08/17. Zarauzko XXXI. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:19.69 (3.k)
2009/08/16. Zarauzko XXXII. Ikurrina	Zaharra	Castro: 19:32.58 (3.k)
2010/08/15. Zarauzko XXXIII. Ikurrina	Zaharra	Hondarribia: 19:40.75 (3.k)
2011/08/14. Zarauzko XXXIV. Ikurrina	Zaharra	Kaiku: 19:15.54* (3.k)
2012/08/19. Zarauzko XXXV. Ikurrina	Zaharra	Kaiku: 20:01.38 (3.k)
2013/08/18. Zarauzko XXXVI. Ikurrina	Zaharra	Urdaibai: 19:30.10 (3.k)
2014/08/17. Zarauzko XXXVII. Ikurrina	Zaharra	Kaiku/Orio**: 19:39.92 (3.k)
2015/08/16. Zarauzko XXXVIII. Ikurrina	Zaharra	Hondarribia: 17:35.86 (3.k)^
2016/08/14. Zarauzko XXXIX. Ikurrina	Berria	Urdaibai: 19:50.73 (3.k)
2017/08/20. Zarauzko XL. Ikurrina	Berria	Hondarribia: 20:14.20 (3.k)
2018/08/19. Zarauzko XLI. Ikurrina	Berria	Orio: 19:51.46 (3.k)
2019/08/18. Zarauzko XLII. Ikurrina	Berria	Hondarribia: 20:30.46 (3.k)
2020/08/16. Zarauzko XLIII. Ikurrina	Berria	Santurtzi: 19:23.72 (3.k)


Oharrak: * 2011n **Kaiku** 19:15.54 denbora lortu zuen, **Hondarribiak** baino lau segundo gutxiago. Bi txalupek 2008an **Castro**k egindako denboraren (19:19.69) azpitik amaitu zuten. *La Marinerak* 1992an **San Pedro**ren 19:24.21a gainditu zuen.

****Kaiku**k eta **Oriok** denbora bera egin zuten: 19:39.92. San Migel Ligak bakoitzari 12 puntu eman zizkien.

^Estropada eremuaren luzera 4.952 metrotara laburtu zuten.

Ikurrinaren irabazlea	1J (Postua)	2J (Postua)	Guztira	Aldea*
1. 2003. Astillero			19:44.36	
2. Orio	Estropada bakarra		19:57.10	12.74*
*Segundotan				
1. 2004. Urdaibai			19:52.11	
2. Hondarribia	Estropada bakarra		20:00.98	8.87
1. 2005. Castro			19:54.06	
2. Hondarribia	Estropada bakarra		20:02.84	8.78
1. 2006. Orio	20:35.34(1)	19:50.91(3)	40:26.25	
2. Hondarribia	20:37.47(2)	19:50.11(2)	42:27.58	1.33
1. 2007. Urdaibai	20:29.53(2)	21:56.48(1)	42:26.01	
2. Orio	20:17.95(1)	22:19.06(6)	42:37.01	11.00
1. 2008. Castro	19:37.03(1)	19:19.69(1)	38:56.72	
2. Urdaibai	19:44.64(2)	19:35.42(3)	39:20.06	23.34
1. 2009. Castro	19:36.17(1)	19:3.58(1)	39:08.75	
2. Pedreña	19:47.18(3)	19:44.37(2)	39:31.55	22.80
1. 2010. Orio	20:54.43(1)	19:49.16(4)	40:43.59	
2. Urdaibai	21:06.39(5)	19:41.77(2)	40:48.16	4.57
1. 2011. Kaiku	19:23.78(1)	19:15.54**(1)	38:39.32**	
2. Hondarribia	19:30.70(4)	19:19.54(2)	38:50.24	10.92
**Eremu zaharraren errekorra.				
1. 2012. Kaiku	19:31.04(1)	20:01.38(1)	39:32.42	
2. Hondarribia	19:40.34(2)	20:22.68(9)	40:03.02	30.60
1. 2013. Kaiku	19:28.30(1)	19:30.12(2)	38:58.42	
2. Urdaibai	19:34.58(3)	19:30.10(1)	39:04.68	6.26

Ikurrinaren irabazlea	1J (Postua)	2J (Postua)	Guztira	Aldea*
1. 2014***. Kaiku	19:55.92(1)	19:39.92(1)	39:35.84	
2. Orio	20:13.04(3)	19:39.92(1)	39:52.96	17.12
***Bigarren jardunaldian, Kaikuk eta Oriok denbora bera egin zuten.				
1. 2015. Hondarribia	19:42.08(1)	17:35.86(1)	37:17.94^	
2. Urdaibai	20:00.84(2)	17:40.58(3)	37:51.42	33.48
^Bigarren jardunaldian, estropada eremuaren luzera 604 m. laburtu zuten.				
1. 2016. Urdaibai	19:27.50(1)	19:50.73(1)	39:18.23^^	
2. Hondarribia	19:43.24(3)	19:59.59(2)	39:42.83	24.60
^^Eremu berriaren errekorra.				
1. 2017. Orio	20:21.52(1)	20:28.86(2)	40:50.38	
2. Hondarribia	20:40.76(3)	20:14.20(1)	40:54.96	4.58
1. 2018. Hondarribia*^	20:06.76(2)	19:56.16(2)	40:02.92	
2. Urdaibai	19:58.52(1)	20:07.64(3)	40:06.16	3.24
*^Zarazuko ikurrinaren, lehen aldiz, talde batek jardunaldirik irabazi gabe denborarik onena egitea lortu zuen.				
1. 2019. Hondarribia	19:42.32(1)	20:30.46(1)	40:12.78	
2. Orio	19:47.02(3)	20:35.78(2)	40:22.80	10.02
1. 2020. Hondarribia	21:00.48(1)	19:30.38(2)	40:30.86	
2. Santurtzi	21:27.16(3)	19:23.72(1)	40:50.88	20.02



Guztira: 18 (2003-2020)

Hondarribiak hirugarren urtez jarraian irabazi du Zarazuko ikurrina. Azken sei urteetan, lau aldiz irabazi du.


Hondarribiak garaipen-zerrendan **Orio** (11 garaipen), **San Pedro** eta **Kaiku** (5) aurretik ditu, eta lau garaipenekin berdindu du **Santurtzik** lortutakoak.

Zarautz. (Gipuzkoa)

Biztanleria: 22.658 (zarautzarrak)

Monumentuak: Makazaga, Portu, Narros eta Torre Luzea etxeak. Santa Klara eta San Joan

Bataiatzailearen komentuak. **Ondareak:** Santa Maria la Real parrokia, Dotorekua etxea, Mollarriko zamalekua. Museoak: Arte eta Historia, Photomuseum.



Zarautz Arraun Elkarte. Sorrera urtea: 1983. Traineruaren izena. Enbata

Kontxako Banderak: 0

Gipuzkoako Txapelketak: 1. 2007an

Ligak: 0. Ligan irabazitako estropadak: 1

Euskadiko Txapelketak: 0

Inurritzako biotopo babestua. Eremuz nahiko txikia izan arren, kostaldeko ekosistema gehienak biltzen ditu Inurritzako biotopo babestuak: erreka, padurak, dunak eta itsaslabarrak, denak oso tarte laburrean. Horrek egin du, ziurrenik, hain berezi. Zarauzko hondartzaren eskuinaldean itsasoratzen da Inurritza erreka, Talaimendiko labarren oinetan. Errekaz eta haren inguruan dauden padurez eta dunez gain, Talaimendiko itsaslabarrak eta Mollarri ere biotopo babestuaren parte dira.

Zarauzko hondartza. Gipuzkoako hondartzarik luzeena (2,5 kilometro) eta ezagunenetakoa da Zarauzkoa. Atzean, pasealeku zabal eta ederra du, eta bertan nahi adina kafetegi, taberna eta jatetxe daude. Itsagora handietan, pasealekuraino iristen dira olatuak. Oso irekia denez, surferako olatu onak ditu. Zarautz da, hain zuzen ere, Gipuzkoako surfaren ikurra.

Zarauztik Getariara. Kostaldeko errepidetik Zarautz eta Getaria artean dauden lau zpabost kilometroak paseorako oso gustukoak izan dituzte beti inguruko bizilagunek. Haitzetarako jaisteko aukera ere badago, Ubideko kalan, esate baterako –surflariek Karramarro deitzen diote–. Zarauztik Getariara joateko bada beste aukera bat mendiko botak jantzi nahi dituenarentzat. Santa Barbarako baselizatik goraka joan ahala, ibiltariak kostaldearen ikuspegi zoragarriak izango ditu bidelagun, mahasti artean.

Malkorbe hondartza. San Anton mendiaren eta portuko azpiegituren babesean dagoenez, urak bare egon ohi dira Malkorbeko hondartzan. Horregatik, oso egokia da haur txikientzat eta igerian ikasi nahi dutenentzat.

San Anton mendia. Euskal kostaldearen ikurretako bat da Getariako sagua. Gaur egun herriari lotuta egonik, harkaitz erraldoia antzinatik eman die itsasontziei babeslekua. Kostaldea eta itsasoa behatzeko talaia paregabea da, eta astialdirako dago egokituta: zuhaitzak eta ongi prestatutako bidexkak... Mendiaren muturrean, Getariako itsasargia dago.



2020 Zarautz 1J
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Zarautz 2J
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Santurtziko XLI. Bandera

SANTURTZI

2020KO ABUZTUAREN 22A


Eremuko errekorra**: 19:06.62 (2.k) **Orio** 2019an

Denborak:

Zierbena: 19:06.74 (2.tx/4.k)

Hondarribia: 19:18.66 (3.tx/4.k)

Santurtzi: 19:20.84 (3.tx/2.k)



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2018/07/29. Santurtziko XXXIX. Bandera	Urdaibai: 19:35.32 (1.k)
2019/07/27. Santurtziko XL. Bandera (Eremu zaharra)	Orio: 19:06.62 (2.k)
2020/08/22. Santurtziko XLI. Bandera (Eremu zaharra)	Zierbena: 19:06.74 (4.k)

Itsaslaster indartsuei esker, laugarren kaletik lehiatu zirenak —Zarautz, Zierbena eta Hondarribia, bakoitzak bere tandaren irabazleak— izan ziren onuradun nagusiak; berriz, Kaiku, Donostiarra eta Urdaibai, lehenengo kaletik lehiatu zirenak, Ibaizabalen gogortasuna jasan zuten.

Oharrak:

*Harrobikoak: 3.

**Eremu zaharra berriz, aurtan aukeratua.

Cabo kaleratua izan zen, eta **Oriok** txarretsi egin zuen epaileen lana azken txandan.

Hirugarren txandan, estropada buruan Santurtzi eta Orio txandakatu ziren, baina Hondarribia atzean utzi gabe, eta azkeneko bi minutuetan, bukaerako luzean, Ama Guadalupekoa jarri zen buruan. Orduantxe izan zen estropadako bigarren polemika. Orio eta Santurtzi laugarren kalera joanak ziren, Hondarribia bazter bazterretik zihoala baliatuz. Gero Jon Salsamendi kontatu zuenez, epaileak Oriori ababorrera joateko eskatu zion, baina ezin izan zuen hori egin, «Santurtzi genuelako beste aldean». Arraunak jo zituztela ere adierazi zuen Orioko entrenatzaileak, eta horrek kalte egin ziela. Kontua da epaileari ez zitzaiola horrela iruditu, eta, azkenean, Santurtzik egin zuen bigarren, Hondarribia baino 2,18 segundo gehiago eginez. Oriori 3,34 segundo atera zizkion.


Aitor Manterola

Berria egunkariko kazetaria


Sestaoko XIX. Bandera

PORTUGALETE

2020KO ABUZTUAREN 23A
 Eremuko errekorra: 18:58.70 **Castro** 2009an
 Denborak:
Hondarribia: 19:27.98 (3.tx/1.k)
Donostiarra: 19:29.74 (2.tx/2.k)
Ondarra: 19:34.18 (1.tx/1.k)



Oharra: *Harrobikoak: 8



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora/Kalea
2003/09/27. I. BBK Bandera	Astillero: 19:35.26 (1.k)
2009/07/05. La Naval Bandera	Pasai S. Pedro: 19:04.88 (4.k)
2010/07/11. III. Ambilamp Bandera	Astillero: 19:04.13 (4.k)
2011/07/24. IV. Ambilamp Bandera	Hondarribia: 19:24.32 (4.k)
2012/07/07. Portugaleteko XXXI. Bandera	Hondarribia: 20:27.05 (3.k)
2012/08/29. V. Ambilamp Bandera	Kaiku: 19:39.94 (1.k)
2013/06/30. VI. Ambilamp Bandera	Tiran: 19:39.90 (2.k)
2013/08/24. Portugaleteko XXXII. Bandera	Kaiku: 19:31.90 (4.k)
2014/08/30. Portugaleteko XXXIII. Bandera	Orio: 19:04.74 (4.k)
2015/07/19. VII. Ambilamp Bandera	Hondarribia: 19:32.32 (2.k)
2015/08/23. Portugaleteko XXXIV. Bandera	Hondarribia: 19:32.50^ (2.k)
2016/08/27. VIII. Ambilamp Bandera	Urdaibai: 19:26.32 (2.k)
2016/08/28. Portugaleteko XXXV. Bandera	Urdaibai: 19:20.22 (2.k)
2017/07/02. Sestaoko XVI. Bandera	Orio: 19:32.20 (4.k)
2018/06/30. Sestaoko XVII. Bandera	Urdaibai: 19:31.08 (3.k)
2019/07/21. Sestaoko XVIII. Bandera	Santurtzi: 19:18.38 (2.k)
2020/08/23. Sestaoko XIX. Bandera	Hondarribia: 19:27.98 (1.k)

BBK, La Naval, Ambilamp, Portugaleteko eta Sestaoko Banderak.

^Benetako denbora: 19:29.50 izan zen, hiru segundoko zigorra jaso baitzuen.

Hondarribiaren aurrerapena ikusgarria izan da. Liderrarengandik 20 puntura egon ostean, uztailaren bukaeran Bilboko estropada lehiatu ondoren 11 puntura kokatu zen eta gaur egun Soteratik (131) puntu bakarrera (130) jarri da.

Estropadaren ondoren, Iker Zabala Santurtziko entrenatzaileak adierazi zuen «lotsagarria» zela estropada, marea biziak izanik, kaleen artean alde handiak dituen itsasadar batean jokatzeari. Bermeotarrak ETB1ean esan zuen bere arraunlariak «zoriondu» behar zituela, «baina gerentea eta TKEko presidenteak jakinaren gainean zeudela» kritikatu zuen, eta orain «liga pil-pilean dago, eurek nahi zuten bezala». Bere ustez, «ez da nik ulertzen dudana ikuskizunik ikusi». Gogora ekarri zuen Santurtziko 2018ko estropada, Sotera laugarren kaletik azkenaurrekoa izan zenekoa.



2020 Santurtzi-Portugalete
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Sestao-Portugalete
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

XIII Bandeira Concello de Ares

ARES

2020KO ABUZTUAREN 29A

Eremuko errekorra: 19:34.94 (3.k) **Hondarribia** 2020an

Denborak:


Hondarribia: 19:34.94 (3.tx/3k)

Santurtzi: 19:38.54 (3.tx/4.k)

Bermeo-Urdaibai: 19:45.14 (3.tx/2.k)

Entr.: M. Orbañanos

Ama Guadalupekoa



Data/Ikurrina	Irabazlea/Denbora/Kalea
2017/07/16. X Bandeira Concello de Ares	Zierbena: 19:44.32 (2.k)
2020/08/29. XIII Bandeira Concello de Ares	Hondarribia: 19:34.94 (3.k)

Hondarribiak seigarren garaipena eta bosgarren bandera irabazi zituen Aresen (Galizia). Hiru jardunaldi baino ez ziren geratzen amaierara heltzeko, eta puntu kopuru bera zuten (142) Hondarribiak eta Santurtzik, baina bizkaitarrek bi garaipen bakarrik zituztenez, gipuzkoarrak ziren lehen postuan.

Oharrak:

*Harrobikoak: 8.

Kaiku TKE ligan hamabi urte jarraian eman ondoren eta hiru koroa irabazita KAE 1era jaitsi zen. Bizkaitarrak 2009an debuta egin zuen, Jose Luis Kortak Sestaon egin zuen lehen urtean, 2008an, KAE 1 liga irabazi eta gero. 2011 eta 2013 artean hiru TKE koroa lortu zituen, eta horiei 2009ko eta 2012ko Kontxak gehitu zizkien.

Isuntzako arraunlari batek COVID19arekin jasotako emaitza kontrajarriak zabaldu ondoren, TKEko epaileak, «zuhurtzia» oinarri hartuz, konfinamendu protokoloa ezarri zion talde osoari. Ligako araudiaren arabera, Lekittarrari ordura arte batutako puntuen batezbestekoa eman zitzaion Ares eta Boiroko estropadetan: bosna puntu.

Azkeneko luzean, norabideak aukeratzeko momentuan, Oriok bakarrik egin zuen ababor aldera, eta denbora galdu zuen hiru aurkariekiko. Azkena Kaiku izan zen, alde haundiarekin, laugarren kaletik. Eraitza hori dela eta talde historikoa KAE 1 ligan ariko da datorren denboraldian, liga gorenera igo eta hamabi urtera.

Zirrargarria bezain polita. Azken denboraldietako Eusko Label ligarik parekatuena izaten ari da aurtengoa. Sailkapen nagusiaren bi muturretan, aldaketa ugari dago estropadatik estropadara. Ligako traineru gehienak postuen dantza batean daude murgilduta. Hiru jardunaldiren faltan, ezer ez dago zehaztuta. Dena jokoan dago.

Iñigo Lasa

Berria egunkariko kazetaria

XXX Bandeira Concello de Boiro

BOIRO

2020KO ABUZTUAREN 30A


Eremuko errekorra: 19:03.96 (4.k) **Urdaibai** 2017an

Denborak:

Santurtzi: 19:44.85 (3.tx/1.k)

Zierbena: 19:45.16 (2.tx/1.k)

Hondarribia: 19:51.43 (3.tx/2.k)



Data/Bandera	Irabazlea/Denbora
2003/07/13. XIII Bandeira Concello de Boiro	Astillero: 20:27.53 (4.k)
2004/07/11. XIV Bandeira Concello de Boiro	Urdaibai: 19:52.03 (3.k)
2005/07/10. XV Bandeira Concello de Boiro	Hondarribia: 20:02.84 (3.k)
2006/07/09. XVI Bandeira Concello de Boiro	Hondarribia: 19:09.08 (2.k)
2007/07/08. XVII Bandeira Concello de Boiro.	Orio: 19:49.60 (2.k)
2008/07/05. I Bandeira Rianxeira	Urdaibai: 19:45.29 (1.k)
2008/07/06. XVIII Bandeira Concello de Boiro	Castro: 19:29.89 (2.k)
2014/08/10. XIX Bandeira Concello de Boiro	Orio: 20:49.46 (2.k)
2015/08/09. XXV Bandeira Concello de Boiro	Hondarribia: 19:42.01 (4.k)
2016/07/24. XXVI Bandeira Concello de Boiro	Urdaibai: 20:03.38 (4.k)
2017/08/27. XXVII Bandeira Concello de Boiro	Urdaibai: 19:03.96 (4.k)
2018/08/26. XXVIII Bandeira Concello de Boiro	Urdaibai: 19:18.58 (2.k)
2019/08/25. XXIX Bandeira Concello de Boiro	Orio: 19:43.80 (2.k)
2020/08/30. XXX Bandeira Concello de Boiro**	Santurtzi: 19:44.85 (1.k)

Oharra:

2009. urtean, arazo ekonomikoagatik, Cabok San Migel ligan parte hartzeari uko egin zion.
2013an berriz ere igotzea lortu zuen.

Oharra:

*Harrobikoak: 4.

**Lekittarrak ez zuen parte hartu konfinamendu protokoloa betetzen ari baitzen.

Hizkuntza ohiturei buruz pentsatzen makina bat ordu pasatu izan ditudala esan, eta ziur ez dela inor harrituko. Baina azken larunbateko estropadan, jo eta su nenbilela, neure burua hizkuntza ohiturei buelta bat ematen harrapatu nuela esanez gero...Batek baino gehiagok pentsatuko du ea indarrrik egiten ote dudan, edo arraunlari batzuei entzun izan diedan bezala: «Pentsatu gabe egin beharra zagok arraun, bestela, atzetik joango haiz eta!» Horri guztiari buruzko hausnarketa lagun batek piztu zidan lehengo astean. Estropadaren minuturen batean, zein minutu zen ez dut gogoan, trainerua egoki zebilela antzeman, eta «¡Sigue!» esan nuen, momentua luzatzeko asmoz. Bospasei paladaren ondoren, «segi!» esatera pasatu nintzen. Lehorreratzean, bi letra tokiz aldatze hutsarekin erabili nahi eta ohi dudan hizkuntzan nenbilela ohartu nintzen. Arraunean erabiltzen ditugun hitz eta izaten ditugun solasaldi asko eta asko gaztelerez izaten dira. Arraunean erabiltzen den hizkuntza tekniko, orokorrean, gaztelerez da. Beraz, badugu zertaz egin gogoeta... Gaztelerez erabili ohi ditugun hitz gehienak badute euskarazko hitza. Are gehiago, euskaraz itsasoarekin loturiko hiztegi zabal eta polita dugulakoan nago.

Niko Iurramendi

Donostiarra taldeko arraunlaria

Zarautz Arraun Elkartek proposamena egin zuen: igoerarik eta jaitsierarik ez izatea, «ezohiko denboraldia» izango zela kontuan hartuta. TKEko zenbait klub ados zeuden proposamen horrekin, baina proposamena ez eztabaidatzea erabaki zuen batzarrak maiatzaren 30ean egindako bileran. Izan ere, aldeko hamar boto behar ziren proposamena bozkatzeko, eta zazpi bakarrik azaldu ziren alde. Beraz, ohiko sistemari eutsi zioten: azkena jaitsi egingo da KAE1 ligara eta Eusko Label ligako azken-aurrenak, KAE1 ligako eta Galiziako ligako aurreneko biek kanporaketa jokatu dute.



2020 Ares
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT



2020 Boiro
Aitor Arrizabalaga. TKE/ACT

Bermeo Hiriko XXXVIII. Ikurrina. Avia S.N

Entr.: I. Zabala

BERMEO

2020KO IRAILAREN 19A


Eremuko errekorra: 19:16.60 (2.k) **Hondarribia** 2014an

Denborak:

Santurtzi: 19:54.98 (2.tx/3.k)


Hondarribia: 19:55.24 (2.tx/2.k)

Bermeo-Urdaibai: 20:15.62 (2.tx/1.k)



Oharra:

*Harrobikoak: 4



Data/Ikurrina	Irabazlea/Denbora/Kalea
2003/09/20. Bermeo Hiriko XXI. Ikurrina	Orio: 19:26.11 (1.k)
2004/09/18. Bermeo Hiriko XXII. Ikurrina	Astillero: 20:12.11 (3.k)
2005/09/18. Bermeo Hiriko XXIII. Ikurrina	Astillero: 20:35.97 (1.k)
2006/07/16. VIII. Telefonica Bandera	Orio: 19:49.06 (4.k)
2006/09/17. Bermeo Hiriko XXIV. Ikurrina	Castro: 19:58.00 (3.k)
2007/09/16. Bermeo Hiriko XXV. Ikurrina	Urdaibai: 19:50.17 (1.k)
2008/09/20. Bermeo Hiriko XXVI. Ikurrina	Urdaibai: 20:01.62 (3.k)
2009/09/19. Bermeo Hiriko XXVII. Ikurrina	Castro: 20:32.24 (1.k)
2010/09/18. Bermeo Hiriko XXVIII. Ikurrina	Urdaibai: 19:55.84 (3.k)
2011/09/17. Bermeo Hiriko XXIX. Ikurrina	Hondarribia: 20:24.10 (3.k)
2012/09/29. Bermeo Hiriko XXX. Ikurrina	Kaiku: 20:34.48 (4.k)
2013/09/14. Bermeo Hiriko XXXI. Ikurrina	Urdaibai: 20:11.36 (3.k)
2014/09/20. Bermeo Hiriko XXXII. Ikurrina	Hondarribia: 19:16.60 (2.k)
2015/09/19. Bermeo Hiriko XXXIII. Ikurrina	Hondarribia: 19:51.74 (4.k)
2016/09/17. Bermeo Hiriko XXXIV. Ikurrina	Urdaibai: 21:06.92 (1.k)
2017/09/16. Bermeo Hiriko XXXV. Ikurrina	Hondarribia: 19:44.32 (1.k)
2018/09/15. Bermeo Hiriko XXXVI. Ikurrina	Orio: 20:41.16 (3.k)
2019/09/14. Bermeo Hiriko XXXVII. Ikurrina	Orio: 19:43.66 (1.k)
2020/09/19. Bermeo Hiriko XXXVIII. Ikurrina	Santurtzi: 19:54.98 (3.k)

Ligako momenturik politena Bermeoko estropada izan zen. Gero, etxean ikusiz, hori berretsi egin nuen.

Ander Zabala

Santurtziko arraunlaria

Sekulakoa izan zuten Santurtzik hirugarren kaletik, eta Hondarribiak bigarrenetik, bigarren eta azkenengo txandan. Kanpora gipuzkoarrak hobeto, aurkariaren kolean sartuz. Bueltako azken metroetan, bizkaitarrak nagusi. Hondarribia preso utzi zuen Santurtzik azken metroetan, ez zion utzi erdira joaten; aldiz, bera pixka bat joan zen, eta komeni izan zitzaionean. Epaileak ere atsedean hartu zuen, txandan zehar Hondarribiari hiruzpalau abisu eman eta gero. Ez zituzten, behintzat, arraunak elkar jo.

Azkeneko txanpan erabaki zen bien arteko lehia, 26 ehunen baino ez zizkion atera Santurtzik aurkari zuzenari.

Aitor Manterola.


Berria egunkariko kazetaria

Bermeo. (Bizkaia)

Biztanleria: 17.026 (bermeotarrak)

Monumentuak: Santa Eufamia eliza (XVI. m.), Ertzilla dorrea (XIII. m.). **Ondareak:** Andre Mari eliza,

Gaztelugatxeko San Joan basiliza (Bakio eta Bermeo artean dago). **Museoak:** Arrantzaleen museoa.



Urdaibai Arraun Elkarte (Bermeo). Sorrera urtea: 1975. Traineruaren izena: Bou Bizkaia

Kontxako Banderak: 5. Lehenengoa: 2010ean. Azkena: 2016an.

Ligak: 7. **Ligan** irabazitako estropadak: **81**

Bizkaiko Txapelketak: 12. Lehenengoa: 1999an. Azkena: 2019an

